

Ikasleria. martxoan.

I H A U R R I

Ikamako
II.kongresuko
ponentzia

Ikamako
II.kongresuko
ponentzia_

AURKI - BIDEA

1.	SAR-HITZA.....	5
2.	NON ETA NOLA GAUDE IKASLEOK.....	6
	1. MUNDUAZ	
	2. HEZKUNTZA SISTEMAZ	
	3. EUSKAL HERRIAZ	
	4. EUSKAL HERRIKO HEZKUNTZA SISTEMAZ	
	5. IKASLERIAZ	
3.	IKAMA IKASLE ANTOLAKUNDEA DEFINITZEN.....	15
	1. IZAERA	
	2. HELBURUAK	
	3. EKOSISTEMA	
	4. JARDUN EREMUA	
4.	NOREKIN ETA NORENTZAT.....	18
5.	ZERTARA GOAZ.....	20
	1. NAZIONALA	
	2. KOMUNITARIOA	
	3. PUBLIKOA	
	4. FEMINISTA	
	5. EUSKALDUNA	
6.	NOLA EGINGO DUGU.....	23
	1. HEZKUNTZA SISTEMA PROPIOA	
	2. LAN ARDATZAK	
	1. PROIEKTU POLITIKOA	
	2. IKAS-BALDINTZA DUINAK	
	3. BORROKA FEMINISTA	
	4. EUSKARAREN ALDEKO BORROKA	
	5. BORROKA INDEPENDENTISTA	
	6. KOIUNTURA ETA KANPO ALDARRIKAPENAK	
	7. BORROKA EKOLOGISTA	
	8. TRANSMARIBIBOLLO BORROKA	
	3. ESTILO PROPIOA	
	1. IKUSPEGI FEMINISTA	
	2. ANBIZIOA ETA BOTERE LEHIA	
	3. ERREFERENTZIA ETA IDENTITATEAREN ERAIKUNTZA	
	4. MASA MOBILIZAZIOA ETA BORROKA IDEOLOGIKOA	
	5. ERAIKITZAILEA	
	6. ELKARLANA	
	4. IKASLE MUGIMENDUA	
7.	NOLA EGINGO DUGU LAN.....	31
8.	NOLA ANTOLATUKO GARA.....	34

“ Hezi, gure adimen guztiaren beharra izango dugulako. Matxinatu, gure ilusio guztiaren beharra izango dugulako. Antolatu, gure indar guztiaren beharra izango dugulako ”.

Ikasle on artean, Gramsci-ren hitz hauetatik tiraka, ilusio izpi bat sortzea lortu genuen. Ikasle borrokaren izpia hain zuzen ere. Orain, Ikama sortu genuenetik 4 urte igaro diren honetan, hezi, matxinatu eta antolatu garela esan dezakegu.

Kemen handiz heldu gara honaino. Urratsez urrats: ziprintin bakoitza urrunago. Noraino iritsi gaitezke?

Bidea egiten jarraituko dugu, izan ere, oraindik asko dira egiteko ditugunak. Bide honetan handitu gara, eta jauzia emateko unea iritsi zaigu: jauzi organizatibo eta politikoa. Hedatu gara, ihaurri gara.

Bagoaz zabaltzen. Nola izarak haizatuz aire-zabalean; hala gu hegaka zabal-ederrean. Hats adoretzu bat jauzi egiteko.

Hau da esku artean daukagun ponentzia, egindakoaren islada. Ihaurri garenaren islada. Hezkuntza eremu osora jauzi egin eta horretarako estrategia definitu dugu. Ikasleok Euskal Herrirako behar dugun hezkuntza sistema eraikiko dugu.

Gas batek duen berezko joera legez; lekua hartuz. Zirrikitu guztiak betetzea; hedatzea.

Hedatu, luzatu, barreiatu, bere, zabaldu. Ihaurri.

1. SAR-HITZA

Lau urte igaro dira Ikama ikasle antolakundea aurkeztu genuenetik. Ikama Covid19ak Euskal Herriko mapa politikoan eragindako testuinguru nahasi batean sortu zen ikasle mugimenduan identifikaturiko hutsune bat betetzeko beharraren ondorioz. Garai hori gaindituta, antolakundeak egun kokatzen den puntu honetara iritsi arteko bidea egin du.

Askotariko arrazoiek eragin zuten ikasle antolakundearen sorrera. Nagusiena Euskal Herriko ikasleriari bere behar eta nahien arabera tresna ahalik eta eraginkorrena eskaintzeko nahia izan zen, balio aurrerakoi eta euskaltzaleen baitan lan egingo zuena. Anbizio horrek bere horretan jarraitzen du oraindik.

Ponentzia honek Ikamaren azken hilabeteetako eztabaida eta hausnarketen ondorio izan nahi du, ehunka ikasleren artean egindako ariketa kolektibo baten emaitza. Orain, behean jasotako hitz guztiak praktikara eramango ditugu; gure ekosistema naturalera, hau da, kale eta heziguneetara.

Baina azken hilabeteetako hausnarketa prozesu hau ez da nolana hikoia izan. Hipotesi ausart eta anbiziotsuak izan ditugu esku artean, aldaketa nabarmenak dira mahai gaineratu ditugunak, epe luzeko betaurrekoak izan ditugu soinean eta horrek guztiak Ikama berritu bati eman dio bide.

Jarraian aurkeztera goazena salto bat da, jauzi bat. Gorantz, aurrerantz, eta ezker zein eskuinerantz egingo dugun urrats bat. Batzuetan atzera urratsak beharrezkoak direla esaten dute, urrunera goazelako eta horretarako indarra hartu behar delako. Guk, momentuz, ez dugu atzerapausorik eman. Agian helduko dira horrelakoak emateko momentuak, baina argi duguna da urrunera goazela, eta, horretarako, hurrengo orrietan jasotzen diren hitzek indarrez beteko gaituzte, norabide egokienean eta ilusio guztiarekin Ikama indartsu, prestatu eta erakargarri bat eraikiz.

2. NON ETA NOLA GAUDE IKASLEOK

1. MUNDUAZ

Euskal Herriko hezkuntza sistema ezin dugu mundu mailan indarrean dauden joeretatik kanpo ulertu. Horregatik, munduan gertatzen ari diren prozesuen gako batzuk izatea garrantzitsua da, hezkuntza sistemaren garapenean duten eragina ulertzeko.

Duela hiru hamarkada Sobietar Batasuna desegin zenetik, sistema kapitalista zisheteropatriarkala munduko sistema hegemoniko bakarra izan da. Hori da indarrean dagoen sistema politiko, ekonomiko, sozial eta kulturala. Gutxi batzuen interesak defendatu eta etekinak maximizatzeko diseinatutako sistema da, gainontzeko guztien zapalkuntzan oinarritzen dena. Azken hamarkadetan, gainera, sistema eboluzionatzen ari da eta are bortizagoa da haren eragina, planeta bera arrisku larrian jartzera. Fase neoliberealean dago orain, ongizate sistemaren apurrak desegiten eta merkatu librea muturreraino eramaten. Muturreko egoera honetaraino sistema kapitalista zisheteropatriarkalak ekarri gaituela ulertu behar dugu. Egoeraren erroa hori izanik, badira datozen urteetan gertutik aztertu beharko ditugun eta hezkuntza sisteman ere eragina izaten ari diren bestelako fenomeno batzuk.

Aldaketa demografikoa bizitzen ari gara. Planetaren giza populazioak gora egiten jarraitzen du, baina hazkunde hori ez da orekatua izaten ari, tokian toki askotariko mailatan gertatzen ari baita. Mendebaldeko gizartea deiturikoan jaiotza-tasa jaisten ari da. Orain arte migrazioak orekatzen zuen populazioaren hazkundea, baina orain, urtetik urtera, jaisten ari da. Bestalde, kapitalismoa gutxien garatu den herrialdeetan jaiotza-tasak gorakorra izaten jarraitzen du, baita populazio mailak ere. Horrek, beraz, mundu mailako desoreka dakar. Euskal Herriari dagokionez, gero eta ume gutxiago jaiotzen dira, gero eta nerabe eta gazte gutxiago daude, eta orain arte migrazioak datu hauek orekatzen bazituen ere, ez dugu sistema inklusibo eraginkorrik. Beraz, auzi demografikoa datozen urteetako gizartearen erronketako bat izango da.

Krisi ekosoziala ere bada azken urteak ardatzu dituen mundu mailako auzi garrantzitsuenetako bat, eta hurrengo urteetan horrela izaten jarraituko du. Planetaren tenperatura igotzen ari da, inoiz baino azkarrago, eta aurreikuspena igotzen jarraituko duela da. Horrek planetaren bizigarritasunean eragin handia du. Ipar eta hego poloen urtzea, itsas maila igotzea, fauna eta floraren desagertzea, planetako lurralde batzuk ez izatea bizigarriak, muturreko klima egoerak, suteak, lehortek... Horiek guztiak planetaren berotzearen ondorio dira, eta egoera hau giza jardueraren ondorio da, sistemak bultzatutako jardueraren ondorio. Egoera hau izanik ere, oraindik badira errealitatea ukatzen duten agente politiko, sozial eta ekonomiko garrantzitsuak. Momentuz, gizarteak eta mundu sistemak ez du erronka horri aurre egiteko gaitasunik erakutsi.

Gauza jakina da gerra produkzio sistema kapitalista sostengatzeko eta azeleratzeko elementu garrantzitsu bat dela. Gerra beti egon da, forma eta intentsitate ezberdinetan izan arren, inoiz desagertu ez den praktika bat izan da. Azken urteetan, ordea, aspaldi hartzen ez zuen dimentsio eta protagonismo bat hartu du, Ukrainako gerran ikusi dugun gisara. Baina gerrak hamaika ertz ditu, eta gerra zuzenak dituen ondorioez gain, sistemarengan aldaketa esanguratsuak eragiteko gaitasuna du. Bizitzaren garestitzea, inflazioa, zenbait produkturen agortzea eta petrolioaren krisia, besteak beste, gerraren ondorio dira. Horregatik, gerrek iraun bitartean, egoera ziurgabeen aurrean egongo gara etengabean, horrek gizartean dituen ondorio politiko, sozial eta ekonomikoak arriskutsuak izanik. Ezin ditugu nazio askapenerako borrokan diharduten herrialde zapalduak ahaztu, batez ere, genozidioa jasaten ari diren herriak: Palestina eta Kurdistan adibidez. Frantziar eta Espainiar estatuak zapalketa hauen konplize direla nabarmendu behar da.

Migrazioa eta migrazio fluxuak azken urteetan indartzen ari den beste errealitate bat dira. Hasieran aipatutako sistema kapitalistak eta egungo fase neoliberalak ez du gupidarik, eta planetako ipar eta hegoaldearen arteko espolio eta esplotazioa indartzen ari da. Metropoli eta kolonia ohien mendekotasun ekonomiko eta produktiboak izugarria izaten jarraitzen du. Afrikako erdialdea, Hego Amerikako zati handi bat, Asiako hegoaldea... Mendebaldeko herrialdeen meategi izaten jarraitzen dute. Horri larrialdi klimatikoaren ondorioak eta gerra egoera etengabeak gehitzen badizkiozu, migrazio fluxuak dira ondorio. Azken urteetan, Europara edo Estatu Batuetara iristen saiatu diren pertsonak milaka dira, etorkizunik ezak bultzatuta. Gauzak aldatu ezean, datozen urteetako joera hori izango da, eta horrek mundu mailako desoreka indartu dezake.

Ezin dugu aipatu gabe utzi mundu mailan gertatzen ari den faxismoaren eta autoritarismoaren gorakada. Sistemaren krisien aurrean, faxismoa indartzen den ideologia politikoa izan ohi da. Larrialdi klimatikoaren ukazioa, migrazioaren aurkako erreakzioa, eszeptizismoa, beligerantzia... Horren ezaugarri dira. Faxismoa, zeina mundu potentzia askotako gobernuetara iritsi den, ezin dugu ulertu termino instituzional eta elektoraletan bakarrik. Aldaketa kulturalaren terminoetan ulertu behar dugu, gizartea bere osotasunean ari baita ideia eta balio faxistak bereganatzen. Mundu ikuskera aurrerakoi eta ezkertiar bat defendatzen dugunok, ordea, mehatxu gisa ulertu behar dugu eta alternatiba erreal eta erakargarriak eraiki.

Kapitalismo globalak merkatu logika bultzatzen du. Bertan, enpresa pribatuek irabazi gehiago lortzeko pertsonen eta planetaren ongizatea baztertzen dira, merkatuaren logika are gehiago azeleratuz. Lehiakortasun ekonomikoak balibideak neurri gabe ustiatzea eta lan-eskubideak galtzea ekarri du. Errealitate horrek ordea, sakoneko aldaketa bat behar dugula erakutsi digu, non pertsonak eta ingurumena erdigunean jarriko diren. Koiuntura bortitz honi alternatiba muga eta hesiak gainditu eta nazio ezberdinen artean aurre egitea da. Nazio eta klase zapalduak kapitalismo global honekin amaitzeko aliantzak egitea eta indarrak hartzea beharrezko dut nazionalismoaren bidetik.

Horiek dira azken urteetan eta aurrerantzean, mundu mailan eta Mendebaldeko ikuspegi batetik biziko ditugun fenomeno sozial, politiko eta ekonomiko nagusiak. Gehiago ere egongo dira, testuingurua eta egoerak oso aldakorrek baitira. Beraz, ikasle antolakunde bezala eta bizi dugun errealitatea gustatzen ez zaion subjektu bezala, horiei gertutik erreparatzea egokituko zaigu.

2. HEZKUNTZA SISTEMAZ

Edozein estatu egituraren oinarritzko zutabeetako bat hezkuntza sistema da, sistema baten arrakasta edo porrota neurtzeko neurgailu nagusienetakoa. Hau da, hezkuntzaz ari garenean, ulertu behar dugu hamaika interes barne biltzen dituen eremua dela. Ulerkera teoriko eta unibertsaletatik haratago, status quo mantentzeko, hau da, ordena sozial, politiko eta ekonomiko erreproduzitzeko ezinbesteko tresna da. Horregatik, hezkuntza sistema arautu, legeztatu eta kontrolatzen duenak balio sistema jakin bat transmititu eta erreproduzitzeko gaitasuna izango du. Hori dela eta, gaur egun, sistema kapitalista zisheropatriarkalaren sostengurako eta erreproduktzioarako ezinbesteko tresna da hezkuntza, hori izanik bere funtzio nagusia.

Hezkuntzarako eskubide unibertsala duela hamarkada batzuk ezarri zen. Eskubide hori langile klasearen eta herri sektore zabalenen garaipen historikoa izan zen: klaseen arteko arrakala murriztu eta pertsonen eta herrien etorkizun duinago baten ortzi-muga ireki zuen. Jakintzaren kolektibizazioa, ikuspegi zabaltzea, mundu ikuskera berriak, balio sistema berriak... ekarri zituen prozesu horrek, ordura arteko sistema-

rentzat mehatxu bat bihurtuz.

Azken hamarkadetan, hezkuntza sistemaren agorpen eta inboluzio fase bat bizitzen ari gara Mendebaldeko gizartean, eta beraz, baita Euskal Herrian ere.

Hezkuntza sistema enpresa pribatuaren mesedetara dago. Ibilbide akademikoa lan munduratzera bideratuta dago, lan esku izatera, zehazki. Hezkuntza logika merkantilisten arabera arautu eta erregulatzen da, ikasleria eta hezkuntza komunitatea izanik kaltetuen ateratzen dena.

Aurrerapen teknologiko berriek hezkuntza sistemaren digitalizazioa ekarri dute. Honekin kontrolerako mekanismoak areagotu dira eta, egun, hauek dira kontrol sozialerako erabiltzen diren moduak. Gainera, mekanismo zibernetikoak dira ikasleen gaineko diziplinamenduzko dispositibo nagusiak.

Beste ezaugarri bat, patriarkatuaren mende egotea da. Gizarte osoa bezala, hezkuntza sistema ere patriarkala da, baina hori iraultzeko tresna izatetik urrun, egoera betikotzen laguntzen du hezkuntza sistemak. Genero arau bitarren baitan antolatuta dago, transmititzen diren balio eta ideiak individualistak, lehiakorak eta baztertzailak dira, eta ez du aukera berdintasunik bermatzen, besteak beste. Horrez gain, hezkuntza sistema honen bitartez emakumeak eta gizonak produzitzen dira. Horretarako, hezkuntza sistema lanaren banaketa sexualean oinarritzen da eta hau horrela, gizarteak inposatzen dizkigun rolak jarraitzea behartzen gaitu.

Hori gutxi balitz, autoritarioa da hezkuntza sistema. Ikasleria erdigunean jarri eta haren behar eta errealitate egokitutako sistema diseinatu eta inplementatu beharrean, inposizio bidezko logika praktikatzen da. Ikasleriak ez du hitzik ezta erabakimenik ere. Edukiak jaso eta barneratzera mugatzen da, ikuspegi kritikorik garatzeko tresnarik gabe. Aurretik aipaturiko zapalkuntza sistemen sostengurako ere entzerrazko-sistema ezinbestekoa da, lau hormen artean egiten dena. Izan ere, hezkuntza sektorializatuak, hots, gainontzeko bizitza sozialetik bereizi eta eraikin itxietan egituratuak, hezkuntza integrala izatea ezinezko bilakatzen du. Horren bitartez, publikotasuna errefusatu eta heziguneetarako sarbidea elitizatzen da, hezkuntza prozesuaren izaera multidimentsionala ukatuz. Ondorioz, antolaketa beraren aldaketa beharrezkoa izango da Ikamarentzat.

Hezkuntza sistemak hartu duen forma eta funtzioaren adibide batzuk besterik ez dira hauek, sistemak gutxi batzuen interesak defendatzeko baliatzen duela mahaigaineratzeko. Baina guk, ikuspegi eraldatzaile batetik, ezin diegu hezkuntza sistema oparitu, ikasleok gizartea eraldatzeko dugun arma nagusienetako bat baita. Hezkuntza sistema ezinbestekoa da ikasleontzat, baina ez diegu egungoak balio. Horregatik, lehiatzea eta gure alde jartzea dagokigu, ikasleok eta Euskal Herriak behar duen hezkuntza sistema eraikiz.

3. EUSKAL HERRIAZ

Euskal Herria ez dago mundu mailan gertatzen ari diren prozesuetatik isolatuta. Hemen ere pairatzen ditugu sistemaren fase neoliberalaren ondorioak: demografiarenak, krisi ekosozialarenak, gerrarenak, migrazioarenak eta faxismoarenak. Argi izan behar dugu, ordea, Euskal Herrian bestelako ezaugarri batzuk ere baditugula, eta mundu mailako prozesu horien aurrean babesgabe badago ere, errealitatea ez dela hain muturrekoa. Hori bai, aldakorra den heinean, ezin dugu inondik inora baieztatu prozesu horiek datozen urteetan indartuko ez direnik.

2008az geroztik, krisia besterik ez dugu ezagutu Euskal Herrian. Langabezia tasa altua, enpleguaren prekaritatea, etxebizitzarako eskubiderik eza, prezioen garestitzea... Azken urteetako continuum bat izan dira. Alderdi politikoek joera horiek indartu dituzten neurri murriztaileak eta pribatizatzaileak aplikatu dituzte, herritarron mesederako politikak egin baino, kapitalaren beharrari erantzunez.

Demografikoki, Euskal Herrian populazioa jaitea da aurreikuspena, eta horrek, hezkuntza ikuspegi batetik, buruhauste bat ekarriko du, dagoeneko ekarri ez badu. Ume gutxiago egonik, sistema birplanifikatzea premiazkoa izango da. Ikamak gertutik begiratu beharko dio errealitate horri.

Krisi ekosoziala, migrazioa eta gerrak agenda politikoan egongo diren gaiak izango dira. Ikamak ere heldu beharko die auzi horiei, euskal gizartearen erronka nagusienetakoak izango baitira datozen urteetan. Ikamak hauekiko posizio eta jardun politiko zehatz bat izatea erabakigarria izango da.

Faxismoa Euskal Herrian indarrrik ez duen ideologia politikoa da. Hala ere, ezin dugu gure artean ere egongo ez balitz bezala jokatu, mundu mailan izaten ari duen gorakada ikusirik. Europa zein Mendebaldeko estatu neoliberaletan ere faxismoaren aurpegi gordinenak antzematen hasi dira. Euskal Herria zapaltzen duten Espainiar zein Frantziar estatuak horren adibide argiak dira.

Gaur egun, Euskal Herrian jadanik faxismoa aurki dezakegu, euskal nortasuna duen faxismoa zonalde desberdinetan antolatzen hasi da. Hau da, eraso LGBTIfobikoak, arrazistak, xenofoboak, feminismoaren aurkako erreakzioa gizonezko gazteen artean... Euskal Herrian gertatu diren egoerak dira eta faxismoaren hedapenaren adibide ere bai. Beraz, tentuz landu beharreko gaia izango da.

Hala ere, esan bezala, mundu mailako prozesuek gurean itzulpena izan arren, Euskal Herrian beste balio sistema hegemoniko bat dugu. Hizkuntza, kultura eta historia propio bat izateak, estaturik ez duen nazio izatearekin batera, bestelako mundu ikuskera bat ematen digu.

Ezin dugu, ordea, ikuskera hori espainiar eta frantziar estatuen eraginik gabe ulertu. Hori da Euskal Herriaren ezaugarri nagusienetako bat, bi estatu zapaltzaileren mende dagoela, erabaki propioak hartzeko burujabetza nahikorik gabe. Hori da Euskal Herria historikoki zeharkatu duen auzia, nazio auzia, hain zuzen ere.

Politikoki, momentu historiko gisa irakurri ditzakegu urte hauek. Borroka armatua amaituta eta urte luze-tako EAJ eta UPNren nagusitasuna amaituta, eszenatoki politiko berri baten aurrean gaude, zeinetan ezkerreko subiranismoa indartuta ageri den. Horrek adierazten digu European estaturik gabeko nazioetako ezkerrek direla jendarteari proiektu erakargarria eskaintzeko gai diren indar politiko instituzional bakarrenetakoak.

Euskal Herria oraindik hiru lurralde politiko-administratibotan zatituta dago, eta horrek, herri gisako kontzientzia ahultzen du. Horregatik, inportantea da hiru lurraldeen arteko kohesioa eta harremana indartzea. Ikamak, izaera nazionala izateko anbizioa duen antolakundea izanik, garrantzia izango du bide horretan.

Zorionez, Euskal Herrian bada gehiengo sozial bat, balio eta ideia eraldatzaileen baitan aktibatzen dena. Hemen daukagun ehun soziala ez da beste lurralde batzuetan dagoena. Komunitatearekiko pertenezia eta ardura maila oso altuak dira, eta hori ezinbesteko elementua da borroka eta mugimendu sozialak martxan jartzerako orduan. Ikasle mugimenduak asko dauka ikasteko horretatik.

Beraz, mundu mailako prozesuek Euskal Herrian duten eragina eta Euskal Herriak berak dituen ezaugarri propioak kontuan izan beharko ditugu antolakunde bezala gure proiektua eta bide-orrria zehazteko.

4. EUSKAL HERRIKO HEZKUNTZA SISTEMAZ

Euskal Herrian erreproduzitu egiten dira hezkuntza sistemak azken hamarkadetan bereganatu dituen funtzio eta logikak. Gainera, forma berezia hartzen du, Euskal Herriaren ezaugarri eta errealitate bereizgarriak ukatuz.

Estatu egitura nahikorik gabeko nazioa da gurea, eta hezkuntza sistema ez dago anbizio nazional eta sozialaren maila berean. Esan gabe doa, bi estatu ezberdinetan eta hiru lurralde politiko-administratibotan zatituta egoteak are gehiago zailtzen duela egoera. Euskal Herriaren ukazioan oinarritzen dira gure lurraldean indarrean dauden hezkuntza sistemak, eta estatuak ukazio hori mantentzeko baliatzen dute. Burujabetza falta nabaria dugu.

Kultur transmisioa kolokan dagoen gai bat da gurean. Aurreko ideiarekin lotuta, bestelako ikuspegi kultural, ideologiko eta identitarioa inposatzen da Euskal Herrian, hemengoari lekurik egin ez eta bigarren maila batean utziz. Horretarako tresna nagusia curriculuma da. Curriculumak lurralde bakoitzean landu beharreko eduki didaktiko, historiko, linguistiko eta kulturala zehazten du, eta Euskal Herrian ez dugu curriculum propioirik. Hau da, Espainiako eta Frantziako curriculumak inposatzen digute hezkuntza sistemak. Lurralde politiko-administratibo bakoitzaren egoera juridikoa ezberdina da, eta beraz, lurraldearen arabera eskubide gehiago edo gutxiago aitortzen zaizkigu. Euskaraz ikasteko eskubidea, zenbait eduki historiko eta kultural lantzeko aukera... ezberdinak dira tokian toki. Horrek Euskal Herriaren barne kohe-sioan arrakala handiagoa eragiten du.

Euskal Herriko hezkuntza sisteman errotuta dagoen segregazioak zuzenean eragiten dio aukera berdintasunari baita euskararen normalizazioari ere. Ikastetxe publiko eta pribatuen arteko aldeak ikasleen banaketa sozial eta ekonomikoa areagotzen du, ikasleak jatorri eta maila sozioekonomikoaren arabera sailkatuz. Honek, hezkuntza komunitate inklusiboa mugatzen du. Nafarroa eta Ipar Euskal Herrian, gainera, euskarazko hezkuntza publikoaren aukera ez dago bermatuta, eta klase sozialak baldintzatzen du euskaraz ikasteko eskubidea. Egoera honek hezkuntza sistemaren eraldaketa sakona eskatzen du.

Euskal Herriko hezkuntza sistema bereizgarri egiten duen beste elementu zentralerako bat hizkuntzaren auzia da, euskararena hain zuzen ere. Urteak dira Euskal Herriko lurraldearen zati batean hizkuntza ofiziala dela, baina horrek ez du hizkuntzaren normalizaziorako balio izan, ez baita horretarako borondate politikorik egon instituzioak eta hezkuntza sailak gidatu dituztenen partetik. Hizkuntzaren auzia hezkuntza sistematik haratago doa, lurralde batzuetan euskara ez delako ofiziala oraindik. Beraz, oinarrizko eskubideak lurralde osoan bermatuta egon arte ez da auzia konponduko. Hala ere, hezkuntza sistemak funtzio oso garrantzitsua dauka euskararen transmisioan eta erabileran. Azken urteetan, ordea, indarrean dagoena nahikoa euskalduntzen ez duen sistema dela erakutsi dute datuek.

Ezin da aipatu gabe utzi hezkuntza komunitateak azken hamarkadetan hizkuntza eta kulturaren transmisioan egindako lana, baina ez da nahikoa. Gure kulturak eta hizkuntzak arriskuan jarraituko dute hezkuntza sistemak irauli ezean. Gainera, Euskal Herrian zehar ditugun askotariko hezkuntza eredu, sistema eta instituzioen analisi sakona egiteko beharra dugu. Analisi honen bitartez, gaur egun ditugun eredu publikoen, pribatuen edota itunpekoen ezaugarritzea egingo dugu, antolakundearen proiektu politikoarentzat baliagarri izan daitekeen ereduak eta aukerak aztertzeke asmoz. Zein egituretan lehiatu behar dugun boterea, zeinetan ez, zein alternatiba garatu behar dugun... Erronka handiak ditugu gure herriaren osorako izango den Euskal Hezkuntza Sistemaren eraikuntzan: dagoena desegiten edo lehiatzen, eredu batzuk indartzen edota alternatibak garatzen. Euskal ikasleon begiradaren analisia garatuko dugu datozen urteetan.

EUSKAL HERRIKO HEZKUNTZA LEGEAK

Hezkuntza legeak hezkuntza sistema arautu eta kontrolatzen duten agiri juridikoak dira. Hego Euskal Herrian bi hezkuntza lege ditugu, bata EAEn eta bestea Nafarroan. Unibertsitate legea, ordea, berdina da bi lurraldeetan. Indarrean dagoen alderdi politikoa bat izan edo bestea izan, hezkuntza legeek aldatetarik pairatzen dituzte, norabide batean edo bestean. Momentuz, ordea, indarrean egon diren legeek ia ez diote Euskal Herriko errealitate eta ezaugarritze sozial, politiko, kultural eta linguistikoari erreparatu eta sistema kapitalista zisheteropatriarkalaren parametroei erantzun izan diete.

Azken urteetan, aspaldian izan gabeko eztabaidak egon dira EAeko legebiltzarrean eta Nafarroako parlamentuan Bigarren Hezkuntzako legeen inguruan. Hezkuntzaren analisiaren gakoetako asko konpartitua dira, baina aterabideak oso bestelakoak. EAEn eta Nafarroan, ordea, ez dago unibertsitateen gaineko eskumenik, eta beraz, unibertsitateen gaineko lege eta aldatetarik Madriletik ezartzen dira zuzenean.

Lomloe

LOMLOE Espainiako kongresuak 2020. urtean onartu zuen legea da. Orduetik, Espainiako hezkuntza sistema arautzen duen lege gorena da, zeinak erkidegoetako administrazio eta gobernuek lege honen parametroen baitan diseinatzen dituzten euren hezkuntza legeak. Beraz, Nafarroako eta EAeko hezkuntza legeak LOMLOEk jasotzen duen markoaren baitan kokatu behar dira nahitaez. Lege hau 2006. urtean onartutako LOE legearen moldaketa bat da.

LOMLOEk 2013tik indarrean zegoen LOMCE legea ordezkatu zuen, Alderdi Popularrak onartutako legea eta espainiar estatuko hezkuntza komunitate osoa sutan jarri zuena. Ezin dugu garaipentzat jo LOMLOEk bere aurreko legeak baino izaera aurrerakoiagoa izatea, kontrakoa ezinezkoa baitzen.

Lau dira Ikamak lege honen aurrean mahaigaineratu zituen analisirako gako nagusiak:

1. Ez du hizkuntza gutxituen murgiltze eredu arautzen. Gaztelania hizkuntza beikularra izango ez bada ere, honek praktikan gutxirako balio du ez badu estatuko gainontzeko hizkuntza koofizialen garapenerako bermerik eskaintzen.
2. Erljioak kabida izaten jarraituko du hezkuntza sisteman. Ebaluagarria izatea derrigorrezkoa izango ez bada ere, eskaintza bera derrigorrezkoa izango da. Beraz, hala nahi duen ikasleak erlijioa edozein zentrotan jasotzeko eskubidea izango du.

3. Curriculumaren %50a Madrilén diseinatuko da. Hau da, Euskal Herrian soilik edukien %50 diseinatu ahalgo da, honek estatuarekiko menpekotasuna kronifikatuko duelarik.
4. Ebaluazio irizpide guztiak Madrilek arautuko ditu.

Horrela, Alderdi Sozialistak LOMCE legegabetu izanaren saria bereganatu zuen, eta aurretik zegoenaren gaineko aldaketa diskretuko lege bat planteatu zuen. Lege honek ezer gutxi eskaini dio euskal hezkuntza sistemari eta errotiko arazoek bere horretan jarraitzeko balio izaten ari da.

Nafarroako hezkuntza legea

Nafarroako parlamentuan aspaldi ez da ematen hezkuntzaren inguruko eztabaida politiko-instituzionalik. 2006ko LOE lege estatala aplikatzen da, ordutik egin zaizkion modifikazioak kontuan hartuz eta egokitzapen txiki batzuk eginez. Azken urteetan lege estatalaren aplikazioa egin dute, curriculumean aldaketa batzuk eginez. Ez dago gehiengo sindikal abertzalerik eta sindikatu estatalak daukate gehiengoa. Honek zaildu egiten du lege propio baten gaineko eztabaida abiatzea.

Euskararen auzia da azken hamarkadetan, eta oraindik ere bada, eztabaidaren erdigunea hartzen duena Nafarroan hezkuntza ikuspegitik. Egia da hezkuntza gairitzen duen auzia dela baina hezkuntzan eskumenak irabaziz gero, lehen urratsak emateko esparrua izan daiteke. Euskara lurralde osoan ofiziala ez izateak eragin zuzena du hezkuntza sisteman, eta beraz, zonaldearen arabera euskaraz ikasteko eskubideak aldatzen dira. Honek arrakala eta desoreka kultural, sozial eta politiko handia eragiten du bai zonaldeen eta bai bertako ikasleen artean.

Euskararen gaineko eta orokorrean hezkuntza lege baten behararen eztabaida abiatzea da eman beharreko lehen urratsa.

EAEko hezkuntza legea

EAEri dagokionez, 1992tik indarrean zegoen hezkuntza legea aldatzeko eztabaida politikoa abiatu zen aurreko legegintzaldiaren hasieran. Hiru urteko prozesuaren ostean, azken 30 urteetako hezkuntza legea ordezkatu da lege berri batekin. Lege hori EAJ eta PSEren aldeko botoekin onartu zen, eta EH Bilduk prozesuan zehar paper garrantzitsua izan bazuen ere, ez zuen baiezkoren alde bozkatu PSEk inposatutako neurri batzuen ondorioz.

Lege horrek zenbait hezkuntza egitura berri sortzeko apustua egiten du, sistemaren beraren kontrola eta jarraipena egitea ahalbidetuko dutenak. Gainera, udalen eta komunitatearen parte hartzea sustatzen du. Hala ere, praktikari buruzko zehaztasun gutxi ditu eta, beraz, momentuz ez dakigu nolakoa izango den legeak izango duen garapena.

Euskara izan da kaltetuen atera den arloa. Hasieran, euskara erdigunean izango zuen eredu eleaniztun baten mesedetan, ereduaren sistema baliogabetuko bazen ere, azken momentuan ereduaren sistemarekin aurrera egitea adostu zuten EAJk eta PSEk. Beraz, euskarak bere garapen eta transmisiorako berme gutxi izango ditu lege horren ondorioz.

Ikastetxe publiko eta itunpekoen finantzaketa izan zen legearen beste gai nagusietako bat. Historikoki Euskal Herriko hezkuntza komunitatean egon den eztabaidari jarraiki, ez da adostasunik egon publikotasun ereduaren inguruan.

Ikusteke dago, beraz, zein ibilbide izango duen legeak eta zein borondate politiko dagoen legeak ezarritakoa aplikatzeko. Esan dezakeguna da legearen eraikuntzan lege hobe bat egiteko aukera galdu bazen ere, aurrerapausoak emateko baldintzak eskaintzen dituela.

LOSU unibertsitate legea

LOSU 2023. urte hasieran onartu zen Espainiako unibertsitateen lege organikoa da. Hau da momentu honetan Espainiako unibertsitate sistema arautzen duen legea, diktadura garaitik onartzen den hiruarren legea. PSOE eta Podemos-en gobernuak onartu zuen, eta aurreko legeari aldaketa txiki batzuk egin bazizkioten ere, unibertsitate eredu neoliberala erreproduzitzeko legea da.

Lege honek ez zuen apenas agenda politiko eta mediatikoa bereganatu Kongresuan eztabaidatu eta onartu zen momentuan. Lege kontinuitate bat da, zeinak aldaketa txiki batzuk jasotzen baditu ere, ikasle ikuspegi batetik gutxi nabarituko dugun. Hau da, orain arte pairatzen genituen egoerak betiketuko ditu.

Gainera, enpresa eta entitate pribatuek erabakimena handiagotuko dute unibertsitateko erabaki eta parte hartze organoetan, besteak beste, gizarte organoen bitartez. Harreman publiko-pribatua indartuta ateratzen da lege honetatik.

Euskarak ez du protagonismo ez eta eskubide gehiagorik bereganatu, tasak eta matrikulazioa merketzeko eta dohakotzeko ez da neurririk planteatu eta administratiboki espainiar sistemari lotuta jarraituko dugu. Historikoki beti egon izan da tentsio bat estatu zentralak kontrolatu eta erkidegoetan unibertsitatea arautzeko egitura propioak behar dituela aldarrikatzen dutenen artean. Lege honek, ordea, ez du norabide batean ez bestean aldaketarik planteatzen. Euskal Herriko unibertsitate ezberdinek espainiar administrazioaren pean jarraituko dute, Euskal Herriko unibertsitatearen eraikuntza posible egin gabe.

Lanbide heziketako legeak

2022ko martxoan sartu zen indarrean Lanbide Heziketako lege berria espainiar estatuan. Lege hau administrazio publikoaren eta enpresa pribatuen ordezkarien artean osatu zuten. Lege honek baditu bere aplikazio propioak bai Nafarroan eta bai EAEen ere. Beste hezkuntza eremuetako legeekin alderatuz, oso bestelakoa dela bai edukiz eta bai formaz. Argi eta garbi lan esku merkea sortzera eta lan munduratzera bideratutako hezkuntza eremua da hau, eta instituzio publiko eta entitate pribatuen arteko kolaborazioa guztizkoa da.

5. IKASLERIAZ

Ikasleria da hezkuntza sistemaren elementu garrantzitsuena. Edo izan beharko litzateke behintzat. Errealitatea, ordea, oso bestelakoa da. Agintariei ahoa ikasleen ongizatearekin betetzen bazaie ere, hezkuntza prozesuko subjektu zaurgarri eta kaltetuena izan ohi da.

Egungo EAEko eta Nafarroako hezkuntza sistemak, unibertsitateak eta lanbide heziketak ez daude ikasleonek neurri eta beharretara eraikita. Badaude hiru hezkuntza eremuetan errepikatzen diren joera batzuk.

Ikasleriaren osotasuna gaztea izateak eragina du. Gazte izateagatik zeharkatzen gaituzten zapalkuntzek ikasleria ere zeharkatzen dute. Prekaritateak gure bizitzak baldintzatzen ditu eta ezin dugu bizi proiekturik garatu. Osasun mentalaren okertzea da ikasleok hezkuntza prozesuan zehar pairatzen dugun beste gaitzetako bat. Antsietatea, urduritasuna, presioa... eguneroko ogia dira ikasle askorentzat, eta horretan, hezkuntza sistemak eragin zuzena dauka, izan ikasleengan jartzen den ardura mailagatik edota exigentzia maila altuagatik. Gainera exigentzia hau helburu produktiboetara bideratuta dago eta ez kritikotasuna edo kolektibotasuna garatzera. Gainera, jarrera autoritarioak etengabe jasaten ditugu ikasleok, bigarren hezkuntzan, unibertsitatean edota lanbide heziketan. Ez zaigu subjektu izaera aitortzen eta irakasle, zuzendari, administrazioako langile, errektore eta abar gure ginetik pasatzen dira. Hau gutxi ez eta hitzik eta erabakimenik gabeko subjektu gara ia hezkuntza prozesu osoan zehar.

Horiek izanik gehien errepikatzen diren joerak, eremuz eremu ezaugarri propioak ditu ikasleriak eta haren egoerak.

Bigarren hezkuntzan

Hezkuntza prozesuko faserik oinarritzakoa bigarren hezkuntza da. Nerabezeroarekin oso lotuta dagoen garaia da, eta 14-17 urte bitarteko tarte horretan, ikasleriak asko garatzen du bere izatea.

Urte horietan hasten dira ikasleak haien errealitateaz jabetzen. Horregatik da hain garrantzitsua ikasle antolakundeentzat etapa horretan ikasleriari behar dituen tresna eta baliabideak eskaintzea, bakoitzaren garapenerako. Irakasleek oso funtzio inportantea dute prozesu horretan, egunean ordu asko pasatzen baitituzte ikasleekin, eta ikasleen erreferente nagusiak baitira. Horrek ikasleen infantilizazioa dakar,

ikasleari bere garapenerako mugak jartzen zaizkio eta ez da subjektu politiko gisa aitortzen. Eskubide gutxi dituen subjektu infantilizatua da ikasleria bigarren hezkuntzan zehar.

Unibertsitatean ezberdina bada ere, Bigarren Hezkuntzan curriculumak determinantea da eta urteak dira Euskal Herriak ez duela curriculumean aurrerapausorik egin. Curriculumak zehazten du ikasleok jasotzen dugun eduki teorikoa, pedagogia ereduak, ebaluazio irizpideak, ikasgai bakoitzeko ordu kopurua... Finean, goitik behera baldintzatzen du ikaslearen hezkuntza prozesua. Hori da dagoen bataila nagusietako bat.

Bigarren hezkuntzak, beraz, sekulako potentzial eraldatzailea du. Balio neoliberal, zisheteropatriarkal eta ez euskaldunetan oinarritzen bada, nekez lortuko dugu ikasleriak balio horiek ez bereganatzea. Ikasle antolakundeak bestelako balio batzuk hedatzeko ardura du, ikasleriak heldulekuak izan eta balio eraldatzaileak barnera ditzan. Horregatik da hain garrantzitsua ikasleriarentzat ikasle antolakunde eraldatzaile bat, eta Ikamarentzat Bigarren Hezkuntzan eskaintza on bat egitea.

Unibertsitatean

Unibertsitatean errealitate konplexuagoak aurki ditzakegu. Unibertsitatean egoteko adin ohikoena 18-22 bitarte izanik, bizitzako garai garrantzitsu bat da bertan igarotzen dena. Bizipen horiek guztiak norberaren ideien eta nortasunaren eraikuntzan gakoak dira.

Ez dago doakoa den unibertsitaterik. Hau da, izaera publikoa dela adierazten diguten arren, beste gauza batzuen artean, matrikulazio tasa handiak ordaindu behar ditugu ikasleok. Masterrak edo doktoretzak egitekotan, tasa hauek asko biderkatzen dira. Kontrara, ikasleok tasa hauei aurre egiteko ditugun baliabideak gero eta murriztagoak dira eta diru laguntza eta bekak lortzea geroz eta zailagoa da. Honek, unibertsitatean ikasi dezaketen ikaslearen kopurua mugatzen du.

Baina, ordaindu beharreko tasez gain, unibertsitateak matrikulaz gaindiko kostuak sortzen dizkio ikasleari. Ikasleriaren zati handi bat bere herri edo auzotik mugitu behar da unibertsitatera joateko, beraz, garraioa edo alokairua ordaintzera kondenatuta daude. Ikasketak aurrera eramateko materiala ere nork bere poltsikotik ordaindu behar du: ordenagailua, apunteak, klase partikularrak... Horrek guztiak izugarri garestitzen du ikasle batek unibertsitatean ikasten duen bitartean ordaindu beharreko diru kopurua. Horretaz gain, unibertsitateak ikaslea prekarizatzen du. Aipatu kostuak ordaintzeko maiz prekarizatuak diren lanetara bideratuta aurkitzen du ikasleak bere burua. Zaintza lan, klase partikular eta abarretara.

Hau guztia gutxi ez, eta pedagogia ereduak da ikasleok itotzen gaituen beste elementu zentralletako bat. Eredu memoristikoa, indibidualista eta lehiakorra dago indarrean. Ez dago balio eraldatzaile eta aurrerakoien transmisiorik apenas, eta jakintzaren kolektibizaziorako eta norbere garapen pertsonal eta kritikorako espazioa izan beharko lukeen instituzioa izanik, oso murriztagoak dira praktika horiek. Gainera, unibertsitateko ibilbidea euskara hutsean egitea ia ezinezkoa da, hautazko ikasgaiak, praktikak... beste hizkuntzatan izan ohi direlako. Azkenik, balio feministen eta pedagogia eredu feministaren zantzurik ez dago unibertsitatean. Emakume akademikoen obra ez da ia lantzen eredu androzentrista izanik, metodologiak ez dira parte hartzaileak, eraso matxisten aurkako protokoloak ez du ikaslea babesten... Unibertsitate eredu patriarkala da. Bukatzeko, krisi ekosozial bete-betean gauden honetan, unibertsitateak horri aurre egiteko duen borondatea hutsala da.

Azken urteetan, aurretik ikusi dugun bezala, lege eta erreforma ezberdinak aplikatu dira estatuko unibertsitateetan. Lege eta erreforma horiek ez dira ikaslearen ikas baldintza duinak hobetzeko norabidean egin, estatu zentralaren eta enpresa pribatuaren interesen defentsan diseinatu dira. Ikasleok gero eta erabakimen gutxiago dugu unibertsitateko erabakimen organoetan, kontrol soziala gero eta handiagoa da, zigorrak eta espedienteak irekitzeko aukerak biderkatu dira... Eta bitartean, eredu gero eta merkantilizatuago dago.

Hori izanik gailentzen den errealitatea, ikasleriak errealitatea iraultzeko subjektu eta tresna nagusia izaten jarraitzen du. Hau da, ikasleak sortu eta eraiki behar ditu eredu alternatiboak eta egoerari aurre egiteko tresna propioak. Unibertsitateak gaitasun eraldatzaile izugarria izaten jarraitzen du, eta Ikamari gaitasun hori biderkatzea eta bereganatzea dagokio.

Lanbide heziketan

Lanbide heziketa, beste bi hezkuntzako eremuekin alderatuta, errealitate ezberdinena duen eremua da. Adinez gazteak gaietzen badira ere, espazio intergenerazionalagoa da. Eta beraz, errealitate anitzagoak aurkitzen dira.

Lan munduratzeko eta lan eskua produzitzeko eremuak dira lanbide heziketak eta, normalean, bigarren hezkuntzan eskola porrota gaizki deiturikoa sufritu dutenak joaten dira. Honek ikasleriarengan frustrazio sentsazioa sortzen du, euren burua gutxitu egiten dute. Oso espazio teknikoak dira, hau da, ideia eta balioen transmisiorik ez da apenas egiten, ez da ahalduntze pertsonal eta politikorako espazioa izaten. Honek kritikotasunik eza sustatu eta pertsona akritikoak hezten ditu, unibertsitatean eta bigarren hezkuntzan baino are gehiago.

Beste ezaugarri bereizgarrietako bat praktikaldiak izaten dira. Lanbide heziketako gradu guztiek praktikaldiak barnebiltzen dituzte. Praktika hauek enpresa pribatuetan egiten dira, agerian utziz enpresa pribatuen eta hezkuntza sailaren arteko itun eta aliantzak. Okerrena, praktikaldi hauek, ia beti, ordaindu gabeak izaten direla. Horrela, ikasleek euren lan indarra dohainik saltzera behartuta daude, ikasten ari direnaren aitzakipean.

Lanbide heziketa, esan bezala, beste errealitate bat da, hezkuntza sistemaren azken lehentasuna, zeinetan historikoki ikasle mugimenduak ez duen jakin eremu hau dinamizatu eta aktibatzen. Horregatik, eredu berpentsatu eta buelta oso bat ematea eskatzen dio Ikamari.

3. IKAMA IKASLE ANTOLAKUNDEA DEFINITZEN

Ikama Euskal Herriko ikasle antolakunde feminista, ezkertiarra eta independentista da. Euskal Hezkuntza Sistema Publiko Komunitarioa eskuratzeko du helburu, baita hezkuntza eremu osorako ikasle estrategia garatu eta burutzea ere. Bigarren hezkuntzan, lanbide heziketan eta unibertsitatean antolatuko da. Ikasle estrategian aurrera pausuak emateko ikasleriari balore aurrerakoiak garatzeko eta helburuak lortzeko tresnak emango dizkiogu. Eredu propio baten eraikuntzarako beharrezko ikasle baldintzak borrokatuko ditugu. Hori guztia eskuratzeko, Ikama indartsu, eraginkor eta ondo antolatu bat eraikitzen jarraituko dugu.

Ikama feminista, sozialista, independentista eta euskaltzalea da, horiek dira gure burua definitzeko ezaugarri nagusiak. Ezaugarri horiek teoriarik eta praktikan izango dute itzulpena, gure buruak berrikusi eta gure jardun politikoa horien arabera diseinatuz. Ezaugarri horien baitan eraikiko du Ikamak ikasle antolakundearen identitatea.

Gainera, Euskal Herria izango da gure eragin eremua, eraldaketarako lurraldea. Horrek, beraz, Ikamaren izaera ardaztuko du, kokaleku bat eta mundu ikuskera bat emanez. Ikamak bat egiten du Euskal Herrian existitzen diren zapalkuntzetatik askatzeko dagoen estrategiarekin, eta ulertzen du Ikamaren helburuak erdiesteko prozesu orokorrago bat babestu eta hauspotzea ezinbestekoa dela. Finean, independentzia tresna gisa behar dugula gure helburuetara iristeko.

Bestelako balio eraldatzaile batzuen alde ere egingo du Ikamak. Transmaribibollo borroka, internazionalismoa, antiarrazakeria... Aurrerantzean Ikama eraikitzen eta ezaugarritzen joango diren balioak izango dira.

1. IZAERA

Ikasleria da bere arreta eremu nagusia eta ikasleria da bere motorra. Ikasleriari zor dio bere izate eta jarduna. Baina ikasle problematika landu eta ikasleriaren ikas baldintzak duintzetik haratago, Ikamak badu beste anbizio bat: lurraldeari eta bestelako zapalduerik ere zor dio Ikamak bere izatea. Horregatik, hezkuntza eta ikasleria izan arren bere eragin eremu nagusi eta lehentasunezkoena, gainontzeko gazteriari eta Euskal Herriari ere begiratuko dio Ikamak. Horrek diskurtsoan zein praktika politikoan izango du isla.

Ikama burujabea da, hau da, ikasleriari eta Euskal Herriari bakarrik zor zaio. Aliantzak, elkarlana eta bidelagunak izango baditu ere, bere erabakien jabe izango da eta berak izango du bere proiektua eta bide-orrria garatzeko erabakimena.

Ikama, gainera, zabala izango da. Ahalik eta ikasle gehien batzea bilatuko du eta gure balio, ideia, borroka eta dinamikak ahalik eta ikasle gehien antolatzerara bideratuko ditu.

2. HELBURUAK-MISIOA

Ikama ikasleriaren ikas baldintzak duintzeko eta Euskal Herriari eta hezkuntza sistemari ikasle mailatik bultzada emateko jaio zen. Orain, norabide horretan aurrerapausoak ematera goaz eta gure eragin eremua handitzea da urrats handienetako bat; aurrerantzean unibertsitatean eta lanbide heziketan antolatzen hasiko da Ikama.

Hiru izango dira Ikamaren helburu nagusiak. Hiru hauek ez ditugu isolaturik ulertuko, elkar loturik baizik. Gainera, ez ditugu mailakaturik ulertuko, elkar eraginean baizik.

1. Ikas baldintza duinen alde borrokatzea eredu propioa eraikiz.

Ikasleriaren ikasketa prozesua duintzea eta ikasleriak ahalik eta ikas baldintza duinenak izatea da Ikamaren izatearen arrazoi nagusienetako bat. Ikasketa prozesuaren duintzea termino eraikitzaileetan eta konfrontatzaileetan egin behar dugu, argi utziz daukagun hezkuntza ereduak ez digula balio eta eredu berri bat eraikiz. Hori egiteko ikasleriak bere behar materialak asebeteta izan behar dituela ulertzen dugu.

2. Ikasleria independentista izatea sustatzea.

Ikamak balio eraldatzaileen transmisioan eta burujabetzan jartzen du arreta gune handienetako bat, eta jakin badaki, Euskal Herrian bi zutabe horiek eskuratzeko lurraldearen independentzia ezinbesteko elementua dela. Horregatik, Ikamatik independentziaren aldeko hautua egin eta ikasleria hautu hori egitera bideratuko dugu.

3. Ikasleria burujabeago eta kritikoagoa izatea sustatzea..

Hezkuntza sistema da norbanakoa politizatzen hasteko eremu nagusia, eta baita norberaren nortasunaren eraikuntzan garai garrantzitsu bat ere. Horregatik, Ikamak ikasleriaren ideietan eta balioetan eragiteko gaitasuna izango du. Balio eraldatzaileen aldeko borroka ideologikoa egingo du.

Gainera, ikasleria ahalduntzea da beste erronka. Parte-hartze politikorako subjektu bilakatuko dugu, bere erabakien jabe eginez, erabakimen organoetan parte hartuz, ikasleriaren iritzia ordezkatzuz... Finean, ikasleriaren burujabetza kuotak handitzeaz ari garenean, horretaz guztiaz ari gara, ikasketa prozesua ikasleriaren neurrira eraikitzeaz.

3. EKOSISTEMA

Akats politiko larria litzateke Ikama isolaturik ulertzea, hau da, bere inguru sozial, politiko eta sindikalari ez erreparatzea. Ikamak argi du bidea ezin duela bakarrik egin, eta dagoeneko badaudela Euskal Herrian askotariko hezkuntza eragileak. Bakoitzak bere helburu eta proiektuak baditu ere, elkartzeko puntuak egongo dira eta Ikamak ez dizkio atek ixten elkarlanari, orain arte egin duen bezala.

Ikasle mugimendua zabala izan da beti eta hori izan da bere potentzial nagusienetako bat. Ikama ikasle mugimenduaren parte da eta, beraz, borroka gainontzeko eragileekin batera egingo du. Batzuetan norbere aldetik, batzuetan elkarrekin, baina ahal den guztietan norabide berean.

Begirada hezkuntza eremutik haratago zabaltzen badugu, ikusiko dugu Euskal Herrian badela ezaugarri propioak dituen errealitate sozial eta politiko bat, eta errealitate horretan jardungo duela Ikamak. Antokundeak testuinguru hori irakurri du eta bere burua eta bere jarduna une eta leku konkretu honetako parametroetan kokatzen du.

4. JARDUN EREMUA

Ikama hezkuntza estrategia integral bat izan eta bere helburuak lortzeko jaio zen. Konfinamendu osteko egoera ziurgabe hartan sortu zen ikasle antolakundea, Covid-19ak eragindako pandemiaren ondorioak bete-betean pairatzen ari ginenean. Lehen urteetan bere jardun politikoa bigarren hezkuntzan garatu du, forma hartuz, identitate propio bat eraikiz eta hezkuntza komunitatean zegokion lekua bereganatuz.

Orain, sortu eta 4 urtetara, bigarren hezkuntzatik unibertsitate eremura eta lanbide heziketara salto egiteko urratsa ematen du Ikamak. Esan bezala, antolakundea estrategia integral bat izateko jaio zen, eta orain du hezkuntzako hiru eremu nagusietan antolatu eta jardun politikoa garatzen hasteko momentua. Beraz, gaurdanik Ikama bigarren hezkuntzan, unibertsitatean eta lanbide heziketan antolatuta egongo den ikasle antolakundea izango da.

Bigarren hezkuntza: Derrigorrezko bigarren hezkuntza eta batxilergoa barne biltzen ditu; lehena derrigorrezkoa eta bigarrena hautazkoa izanik. Ikasleak normalean bere bizitokian edo oso gertu garatzen ditu ikasketa horiek, ez dira unibertsitatean bezain beste ikasle biltzen diren eremuak eta tokian tokiko errealitateak baldintzatuta daude. Ikasleen arteko eta irakaslearekiko harremana estua izan ohi da. Gurasoen eragina oso handia da ikasleengan eta lehen ideia eta balio propioak bereganatzen hasten dira ikasleak bigarren hezkuntzan. Hezkuntza komunitatean irakasle eta gurasoen pisua handia da, ikasleek, ordea, apenas dute hitzik.

Nafarroako eta EAEko gobernuek dute legeen gaineko eskumena, hezkuntza sailak izanik hezkuntza sistemen arduradunak. Hala ere, lege horiek Espainiako hezkuntza lege gorenaren baitan aplikatzen dira.

Unibertsitatea: Hautazkoa da eta batxilergoa ikasten duten ikasle gehienak joaten dira bertara. Hiribururu edo eskualde jakin batzuetan daude campusak, beraz, ikasle gehienek euren etxetik urrun ikasten dute. Unibertsitatea publikoa edo pribatua izan, matrikulazioa ordaindu behar da eta unibertsitate motaren arabera bereizketa oso nabarmena da. Milaka ikasle daude eta ikasleen arteko eta irakaslearekiko harremanak lausoagoak dira.

Hezkuntza komunitatea bigarren hezkuntzan baino konplexuagoa da. Administrazio langileak, ikerlariak, doktoreak, irakasleak, ikasleak... dira hezkuntza komunitatearen parte eta oso komunitate jendetsuak dira, organoak ere konplexuak izanik. Gurasoen papera ez da batere determinantea, eta hezkuntza komunitateko kideen barneko kategorizazio bat dago. Ikaslea da subjektu baztertuena eta erabakimen gutxien duena, jardun politiko handia izan arren.

Bigarren hezkuntzarekin alderatuta, oso bestelako errealitate eta egoerak daude unibertsitatean. Zapalkuntzak bestelakoak dira, eta adinaren eraginez norbere bizi prozesu pertsonalean aldaketa handiak gertatzen diren garaia da.

Erkidegoetako administrazioek ez dute unibertsitatearen gaineko eskumenik ia, eta legeak eta arauak gobernu zentraletik inposatzen dira. Egun indarrean dagoen unibertsitate legea LOSU da.

Lanbide heziketa: Ezaugarri bereizgarrienak dituen eremua dira, bigarren hezkuntza eta unibertsitatearekin alderatuz gero. Ehuneko ehunetan lan munduratzera bideratutako eremuak dira, zentroaren arabera oso maskulinizatuak edota oso feminizatuak, eta adin aldetik belaunaldi artekoak. Oso ziklo laburrak betetzen dituzte ikasleek, bi urtekoak baitira. Horrek zentroarekiko atxikimendurik ia ez garatzea dakar, ezta antolatzeko baldintza egokiak egotea ere.

Ikamak eragin-esparru gisa hezkuntza eremu osoa izan arren, lanbide heziketan, bigarren hezkuntzan eta unibertsitatean izango duen jarduna berezituia izango da; horietako bakoitzean dauden baldintza militante eta koiunturalen arabera. Ertainetan, antolakuntza politikoarekin lehen hartu emana izan ohi denez, sistemari bere osotasunean aurre egitea, momentuko problematikak zentroetan lurreratze eta ezagutaraztea zein ertainen arteko aliantzak egitea egongo da erdigunean. Unibertsitateetan, aldiz, instituzio bat izanik zeinak autonomia eta gaitasun politiko handia dituen, interpelazioa eta talka ezinbestekoa izango da ikasgeletatik beroriei presio politikoa eginez, modu honetan errazagoa izanik exigentzia zehatzak egitea.

4. NOREKIN ETA NORENTZAT

Zer garen eta zergatik garen argi izan behar dugu. Horrez gain, nortzuk, norekin, norentzat... galderak ere garrantzitsuak dira edozein antolakunderentzat eta, baita, nola ez, Ikamarentzat ere. Beraz, gure burua definituta eta ezaugarrituta, horiekiko koherentea izan behar da jarraian zehaztera goazen borrokarako subjektua.

Zerk egiten gaitu ikasle?

Ikasleria izanik erdigunean dagoen subjektua, argi izan behar dugu zerk egiten gaituen ikasle eta zergatik kontsideratzen dugun subjektu propio eta bereizgarria. Lehen ideia sinplea bezain oinarritzkoa da: ikasle gara hezkuntza prozesuan gauden urteetan, ezin gara ikasle izan horretatik kanpo. Ikasle izaten hasten gara hezigunean sartzen garenean eta ikasle izateari uzten diogu hezigunea uzten dugunean. Hori bai, inoiz ez diogu ikasteari uzten. Ikasle izaten hasten garenetik uzten diogun arte, zapalkuntza eta errealitate material eta subjektibo konkretu batek zeharkatzen gaitu. Hau da, ikasle bakoitzak egoera sozioekonomiko berezia du eta hezkuntzak denei erantzuteko ahalmena izan behar du. Zapalkuntza eta errealitate material eta subjektibo hori aldatzen doa ikasketa fasearen arabera, eta ezberdina da bigarren hezkuntzan, unibertsitatean edo lanbide heziketan. Gainera, egungo sistema neoliberealean ikasleriak funtzio zehatz bat du, sistema honen iraupen eta erreprodukziorako ezinbestekoa: hezkuntza sistemak transmititutako balioak barneratu, gure egin eta erreproduzitzea. Beraz, ikasleok ezaugarri hori dugu erdigunean, hezkuntza prozesuak irauten duen urteetan sistemak ezarritako ideia eta balioak barneratu eta erreproduzitzen hasi behar gara. Eta horrek ere egiten gaitu ikasle. Baina, era berean, horrekiko kontzientzia hartu eta buelta emateak ere egiten gaitu ikasle. Hau da, balio zisheteropatriarkal, neoliberal, kapitalistak... barneratu eta erreproduzitu beharrean, balio eraldatzaileetatik ikasi eta gure egiteak egiten gaitu ikasle. Hau guztia hau esanda, gehitu behar da hezkuntza sistemaren zapalkuntza ikasleriatik haratago doala. Adieraztekoa da, ikasleak zapalduta egotean, arazo horrek hezkuntza sistematik kanpoko beste esparru batzuetan ere eragina izatea. Esate baterako, ikasleok jasaten ditugun gastuak, bidegabekeriak, matrikulak, bizi kostua, alokairuak... gure ingurukoek ere egoera honen prekarizazioa bizi dute. Honen harira, hezkuntzak gure osasun mentalean duen eragina gure ingurukoengana ere iristen da, haien bizi ereduak kaltetuz.

Gaztetasuna

Ikaslea gaztea ere bada, salbuespenak salbuespen. Jende heldua kasu batzuetan hezkuntza prozesuan badago ere, oso bestelako errealitatea du. Horregatik, ezin dugu ikasle subjektua gazte subjektutik bereizita ulertu, baizik eta etengabeko elkar eraginean. Termino estrategikoetan, ikasleria gaztea izango da, gazte izateak dituen ezaugarriak ere bere egiten dituelako.

Bereizgarritasunak

Hezkuntza eremua ezaugarri propioak dituen eremua da. Bi edo hiru fase bizitzen ditu ikasleak, lehena bigarren hezkuntzan eta bigarrena lanbide heziketan edo unibertsitatean; kasu batzuetan bietan. Ziklo laburrak izaten dira hauek eta oso ezberdinak bata bestearekin alderatuz gero. Gainera, bizi esperientzia altuko urteak izaten dira. Modu autonomoan harremantzen hasten gara eta komunitate propioak sortzen. Gure lekua bilatzen dugu, gure ekosistema propioa. Norberaren barne eraikuntzan ere urte determinanteak izaten dira. Identitate eta nortasun bat garatzen joaten gara, baita balio eta ideia batzuk geureganatzen ere. Horregatik guztiagatik, eta baita beste arrazoi batzuegatik ere, ulertu behar dugu ikasle antolakunde baten subjektuek ezaugarri bereizgarriak izan behar dituztela.

Beraz, ikasle estrategia eta proiektu politikoa argi dituzten kideak Ikaman izango baditugu ere, beste kide askok bestelako militantzia garatuko dute Ikamaren baitan, aurreko askorarikoa errealitateekin bateragarria den militantzia, hain zuzen ere. Horrek izaera konplexu bezain aberasgarria emango dio ikasle antolakundeari.

Euskal Ikasleria

Euskal ikasleria gisa izendatuko dugu gure balio eta borroken baitan aktibatu eta artikulatuko dugun ikasleria. Horrela izendatuko dugu ahalik eta zabalena izan dadin, eta ahalik eta ikasle gehienek euren burua bertan identifikatuta senti dezaten. Gainera, ezinbestekoa da subjektuak nazio ardatza bere baitan jasotzea. Hala ere, gure nazioaren ulerkera eraldatzailea denez, euskal horretan aurkituko ditugu barne bildurik transmititu nahi ditugun balio eraldatzaile nagusiak.

Balio eraldatzaileen baitako artikulazio, aktibazio, mobilizazio eta ideologizazioa bilatuko dugu. Aipamena behar du independentziaren aldeko aldarriak, hori ere izango baita ikasleriari bidaliko diogun mezu nagusienetakoa. Hori guztia, hezkuntza terminoetara eta ikaslearen errealitateara ekarriko dugu.

Hori horrela izanik ere, Ikamak ikasleria guztiari erreparatuko dio. Guztiari baino, bere errealitate materiala eta subjektiboa zapaldua duen ikasle orori. Eta anbizio horrekin egingo dugu lan, hau da, ahalik eta ikasle kapa zabalarenarengana iristeko eta ahalik eta ikasle gehienek errealitateak aldatzeko. Horregatik, Ikama unibertsitate publiko, baita pribatuetan ere antolatuko da. Kontuan hartu beharra dago unibertsitate pribatuek merkatuaren logika jarraitzen dutela, baina, hala ere, Ikama hezkuntza eremu osoan erreferente izan behar da. Hau guztiagatik, antolakuntza politikorako baldintzak sortu behar dira espazio orotan.

5. ZERTARA GOAZ

Ikasleok hezkuntza sistemak eragiten dizkigun zapalkuntza guztietatik askatu nahi dugu eta hori da gure lehentasun nagusia. Ikasle izateak dakarren zama gainetik kendu eta ikasleria erdigunean izango duen eredia eraikiko dugu.

Ikamaren proiektu politikoa Euskal Hezkuntza Sistema Publiko Komunitarioa eskuratzea izango da. Guk hezkuntzaren izaera emantzipatzailean sinesten dugu. Helburua esparru guztietan norbanakoen, komunitatearen eta naturaren iraupena, garapena eta etengabeko hobekuntza erdiesteko ezinbestekoak diren eskumenak ahalik eta gehien garatzea da, bizitza erdigunean jarriz.

Hori Euskal Herrira ekarrita, euskal ikasle gisa ditugun zapalkuntzekiko kontzientzia hartu eta pertsona burujabeak eraikitzeke prozesu gisa ulertzen dugu. Bere aspektu guztietan, pertsonon garapen integrala nahiz Euskal Herriaren iraupena eta garapena bermatuko dituen tresna izan behar da.

Beraz, ikasle eremuari badagokio ere, gurea proiektu integrala izango da, ikasleonek ezaugarri propioa eta bereizgarriak arreta jartzeaz gain, gazteriari, gizarteari eta Euskal Herriari begiratuko diona.

Horrela, gure azken helburura bidean tarteko geltoki bat identifikatzen dugu, Euskal Hezkuntza Sistema Publiko Komunitarioa eskuratzeko gureganatu beharreko ezinbestekoa. Horri Hezkuntza Sistema Propioa deritzogu. Euskal Herriak bere hezkuntza sistema diseinatu ahal duen momentuan indarrean egongo den sistema izango da. Aurretik esan bezala, Euskal Herriak ez du bere hezkuntza sistema diseinatzeko eskumenik eta eskumen hauek lortzearekin batera hezkuntza sistema hemen eraikitzea lortuko dugu. Horregatik, Euskal Hezkuntza Sistema Publiko Komunitarioa bidean, lehen helmuga Euskal Herriak bere hezkuntza sistema propioa diseinatu ahal izateko nahikoa egitura eta burujabetza eskuratzea da. Euskal Hezkuntza Sistema Publiko Komunitarioa soilik hezkuntza sistema Euskal Herrian diseinaturik eraiki ahal lako dugu.

Proiektu politikoak ondorengo ezaugarri nagusi hauek barne biltzen ditu: nazionala, komunitarioa, publikoa, feminista eta euskalduna.

1. NAZIONALA

Gure erreferentziazko eremu politikoa Euskal Herria da, borrokarako gure subjektu politikoa. Ikamak herri proiektu bat defendatu eta eraikitzeko borondatea du. Proiektu hori nazionala izan behar da, Euskal Herri gisa ditugun eskubideetan oinarriturik egongo dena eta hauek mailarik altuenera eramango dituen lurralde osoan zehar. Beraz, Euskal Herri osoa kontuan hartuko duen hezkuntza sistema aldarrikatzen dugu.

Gainera, gure kultura, historia, hizkuntza eta egungo errealitate sozial, politiko eta kulturala ardatz izango dituen proiektua behar dugu. Euskalduna, euskal kulturaren transmisioa bermatuko duena, nazio izaera aitortuko duena, Euskal Herriaren historia eta jatorria kontuan hartuko dituen... Finean, Ikamaren proiektua gure kultura, hizkuntza eta lurraldearen biziraupena eta garapena bermatuko dituen izango da.

Euskal Herria ezaugarri propioak dituen lurraldea da. Ekonomikoki, juridikoki, sozialki, administratiboki... bestelakoa da. Horregatik, gure errealitateara egokituko den sistema bat behar dugu, ezin dugu kanpoko administrazioen esku utzi gure errealitatearen gaineko erabakimena.

Nazionala eta lurralde osoari erantzungo dion eredu eraiki nahi badugu ere, kontuan eduki behar da izaera askotariko errealitateak daudela gure herrian. Horregatik, eredu nazional baina deszentralizatu baten alde egiten dugu, tokian tokiko ezaugarri eta errealitateak ere kontuan izango dituen.

2. KOMUNITARIOA

Egun gailentzen diren joera indibidualisten gainetik, gure proiektuak elkartasuna eta auzolana lantzen dituen eredu izan nahi du. Jokabide hauekin bukatzeko kolektibotasuna indartzea beharrezkoa da, komunitatearen zaintza eta ongizatea praktikan jartzea. Erdigunean euskal herritarrok osatzen dugun komunitatea egongo da, honen interes, baldintza eta beharren arabera antolatu eta kudeatuko dena. Horregatik komunitarioa izango da.

Herritarra izango da, herritarron behar errealei erantzungo dielako. Hezkuntza Komunitateak elkarlanean eta behetik gora kudeatuko du, prozesu orotan subjektu nagusi izanik. Alabaina, herritar orok hezkuntzaren inguruko erabakietan parte hartzeko aukera eta betebeharra du.

Bigarren hezkuntza, lanbide heziketa eta unibertsitatea herriaren mesedetan egon behar dira; komunitatearen beharrak ase behar dituzte, jakintza elkarbanatuz ikasleen arteko ikaskuntza sustatuko duena eta jakintza komunitatearen esku utziko duena.

Parte hartzailea eta demokratikoa izango da ezinbestean; ikasleak prozesu ororen erdigunean jarriko ditu, praktikoa izango da, kolektiboaren onura lehentasun izango duten metodologia berri eta askatzaileak landuko ditu. Aurrera eramango diren proiektu zein planak, jakintzak plazaratzeko moduak, prozesu parte hartzaile eta irekien bidez garatzea eta erabakiak hartzea da erronka.

Beraz, hezkuntza sistema eta hezkuntza komunitatea gainontzeko gizarteko prozesu eta joeretatik aparte ulertzetik urrun, Ikaman hezkuntza sistema gizartearekin loturan eta hartu-emanen ulertzen dugu, ekarpen kolektibo bat eginez eta komunitate osoaren parte hartzearen ondorio izanik.

Hala ere, ikasleak erdigunean jarriko dituen proiektua izango da. Batetik, hezkuntzari lotutako erabaki orotan ikasleriaren hitza eta erabakia errespetatuak izango dira. Bestetik, ikaslearen garapen integrala helburu, pedagogia askatzailea oinarri izango du, balore eraldatzaileen transmisio eta garapena ardatz izanik.

3. PUBLIKOA

Hezkuntzarako eskubidea pertsona ororen eskubidea izanik, eskubide hau bermatzea erantzukizun sozial eta kolektiboa da. Pertsona ororentzat hezkuntza eskuragarria izatea guztion egitekoa izango da.

Horretarako, alde batetik, ardatzetako bat heziketa prozesuaren doakotasuna izango da. Ez soilik matrikulazioen doakotasuna, albo kostu guztien doakotasuna ere bai. Modu horretan pertsona ororentzako eskuragarria izango da.

Bestetik, inolako segregaziorik onartuko ez duen publikotasuna behar dugu. Jatorri, etnia, erlijio, klase sozial, genero... edozein izanik ere, guztiak onartuak eta aukera berdintasunean jarduten badute soilik izango da publikoa hezkuntza sistema. Bereizkeriarik onartuko ez duen hezkuntza sistema izango den heinean, hezkuntzak laikoa izan behar du. Hezkuntza laikoak edozein erlijioarekin harremanik ez izatea edota sinesmenekiko neutrala izatea esan nahi du.

Gainera, publikoa pribatuaren antagonista gisa ulertu behar dugu. Horregatik, hezkuntza sisteman ezin da lekurik egon enpresa pribatuentzat, ezta logika merkantilistetan egiten diren akordio eta aliantzentzat ere. Merkatuaren logika eta parametroetatik kanpo kokatu behar dugu.

Beraz, guk nahi eta behar dugun Euskal Herria eraikitzen lagunduko duen proiektua publikoa izango bada, gure aburuz euskalduna, merkatuaren logikatik at kokatzen dena eta feminista izan beharko da, beste hainbeste ezaugarriren artean: inklusiboa, laikoa, jasangarria... Publikotasunaren alde norabide horretan lan egingo dugu.

4. FEMINISTA

Gurea, Hezkuntza zisheteropatriarkalarekin bukatzeko bermeak eskainiko dituen eta sistema zisheteropatriarkalak birproduzitzen dituen logiketatik at kokatuko den eredia da, emakume, trans eta bollera burujabeak eta ahaldunduak heziko dituen. Horretarako, eredu honek jarrera zapaltzaileak dituen jendartearekin amaitzeko tresna eta baliabideak sortzeko gaitasuna izan behar du..

Heziketa prozesuak, feminista izango bada, pertsona kritiko, aktibo eta parte hartzaileak sortzea sustatu beharko du. Beraz, jakinik askotariko zapalkuntzek gurutzatzen gaituztela, hauen kontzientzia landu eta hauetatik askatzeko beharrezko balore askatzaileetan oinarrituko da gure hezkuntza sistema. Oinarrian balio feministak egongo dira.

Beraz, kolektibotasuna indartuz eta elkartasuna eta auzolana landuz, lehiakortasuna, indibidualismoa eta mendekotasuna gainditzeko, gure egitasmoak bizi eredu askatzaileak garatzeko oinarriak eta tresnak eskainiko ditu. Hezkidetzari garrantzia berezia ematen dio Ikamak, hezkuntza prozesua baitu eragite-asmoa. Genero-rolen birproduzioarekin amaitzeko, berdintasunean hezteko... Pedagogia feministan oinarritutako hezkuntzan sinisten dugu, hezkidetzari oinarri izanik.

Sustatzen duguten lehiakortasun, indibidualismo eta mendekotasunaren aurrean, erdigunean jarriko ditugun ideiak kolektibotasuna, elkarlana eta elkarrenganako konfiantza izango dira.

5. EUSKALDUNA

Ikasle euskaldun eleaniztunak sortuko dituen eredia behar dugu, euskalduntzea bermatuz eta jendarte euskalduna eraikitzea helburu izanik. Bide horretan, hezkuntza euskalduna zein euskaltzalea beharrezkoa dugu, eduki eta baliabide guztiak euskaraz izan daitezen bermatzeaz gain, euskal hizkuntza, jakintza eta kulturaren transmisioa egingo duena.

Heziketa prozesuaren hizkuntza politiken erdigunean euskara egon ezean, euskara etengabeko indar galaran mantenduko da. Gaztelaniarekin, ingelesarekin, frantsesarekin... alderatuz gero, euskara baldintza okerragoetan dago. Horregatik, euskara erdigunean izango duen sistema behar dugu.

Horretarako, hizkuntza ereduaren sistema indargabetu eta murgiltze eredia implementatu behar dugu. Unibertsitatean eta Lanbide Heziketan euskarazko irakasleen kontratazioa handitu, euskarazko gradu eta ikasgaien eskaintza areagotu eta eduki didaktiko guztiak euskaratu behar dira.

Baina ikasle euskaldunak sortzearekin batera ikasle euskaltzaleak behar ditugu, euskara babesteko eta bultzatzeko konpromisoa izango duten ikasleak. Eta hau ez da soilik euskara erdigunean kokatzen egingo, euskal kultura eta historia transmitituz eta bertan indarrak jarritz egingo da. Horregatik, hizkuntzaz haratago, hizkuntzaren ekosistema eta testuinguru guztia jarriko da erdigunean.

6. NOLA EGINGO DUGU

Ikamak bere helburuak lortzeko izan beharreko bide-orria Ikasle Estrategia da. Ponentzia osoan zehar eduki askotariko elementuak mahai gaineratzen eta aurkezten joan gara: hezkuntza sistemaren egungo analisia, Ikamaren helburuak, ezaugarriak, proiektu politikoa... Orain, hori guztia kontuan izango duen bide-orri bat behar dugu, eremu bakoitzetik egin beharreko lana definituko duena eta nondik eta nora jo seinalatuko diguna.

Ikasle estrategiaren helburua Euskal Hezkuntza Sistema Publiko Komunitarioa eskuratzea da. Gure iparra hau izanik, hona iristeko bidea aldatzea izan daiteke momentuaren eta egoeraren arabera, baina norabidea argi izatea ezinbestekoa da. Ikaslearen errealitatea irauli eta bizi ditugun zapalkuntzetatik askatzeko helburua argi izan behar dugu.

Bide luze honetan, eragile nagusia Ikama izango da, baina bestelako ikasle eragileek eta hezkuntza komunitateko partaideek ere parte aktibo izan beharko dute. Antolakundeak badaki Euskal Hezkuntza Sistema Publiko Komunitarioa bidea ezingo duela bakarrik egin. Errealitate honek elkarlana, aliantzak eta konfiantza edukitzea eskatuko dizkio.

1. HEZKUNTZA SISTEMA PROPIORANTZ

Gure epe luzeko helburua edo helburu nagusia, Euskal Hezkuntza Sistema Publiko Komunitarioa lortzea da. Honetara bidean, ordea, geltokiak izango ditugu. Momentu honetan lehen geltokia Hezkuntza Sistema Propioa da.

Ikaslearen neurria eta beharretara diseinatuta jardungo duen hezkuntza sistema bat eskuratzeko, Euskal Herrian kanpo esku-sartzerik gabe diseinatu ahalko den sistema bat behar dugu. Aldarrikapen hau, ez

da Ikamarena soilik, baizik eta izaera askotariko hezkuntza komunitateko eragile sindikal eta sozialek ere aldarrikatzen dute.

Horregatik Ikamarentzat antolakunde independentista izatea estrategikoa da. Hezkuntza sistema propioa eskuratzeko, independentzia ezinbesteko faktorea izango da, honek eskainiko dizkiolako Euskal Herriari behar beste botere egitura hezkuntza sistema hemen eraikitzeo eta erabakiak hartzeko. Horregatik, aurrerago ikusiko dugun bezala, Ikama Euskal Herriko prozesu independentistaren alde lerratzea, hau babestea eta elikatzea determinantea da.

2. LAN-ARDATZAK

Ikasle antolakunde batek argi izan behar du bere helburu nagusietara iristeko zein lanketa egin behar dituen, hau da, zein eremutan jarriko dituen martxan borroka eta dinamikak. Horregatik, Ikamari lehentasunak markatzea eta hauetan eskaintza erakargarri eta eraginkorrak egitea dagokio. Jarraian, Ikamaren bide-orrian garrantzitsuak izango diren eremu eta ardatzak aurkituko ditugu.

1. PROIEKTU POLITIKOAREN LANKETA

Ikama, azken urteetan hezkuntza komunitatean leku bat bereganatu badu ere, oraindik erreferentziazko eragile bat izatetik urrun dago. Ikamak bere burua, bere izaera, bere proiektua lau haizeetara zabaldu behar ditu, erreferentziazko ikasle antolakunde bilakatzeraino.

Hori, datozen hilabete eta urteetan, proiektu politikoa erdigunean jarriz egingo dugu. Ikamak proiektu identifikagarri bat eskaini behar dio ikasleriari haren balio nagusiekin bat eginez, erakargarria izanez eta ikasleria aktibatuz. Erdigunean balioak jarri behar ditugu, erran nahi baita, Ikamak eta bere proiektuak zein balio ordezkatzan dituen azalartzea bilatzen da eta hauen lanketa egitea.

Ikamak lehen urteetan dinamika zuzenak, orokorrak eta nazionalak behar ditu. Ikasleria ahalik eta zabalaren behar eta errealitateari erantzutea ezinbestekoa izango da. Horretarako, agendan data zehatz batzuei garrantzia berezia emanen diegu: hispanitatearen eguna eta konstituzio eguna; urriak 12 eta abenduak 6. Hauetaz gain, agenda propio osatuago bat eraikiko dugu.

2. IKAS-BALDINTZA DUINAK

Proiektu politikoaren gauzatze bidean ikasle izaten jarraituko dugu, zapalkuntza ugari pairatzen jarraituz. Gure azken helburuetara iritsi bitartean ez dugu gure baldintza material eta immaterialak eraldatu gabe itxarongo. Horretarako, askotariko prozesu eta borroka batera aurrera eraman beharko ditugu. Hauek guztiek elkar elikatuko dute.

Ikas baldintzak duintzea lehentasun bat da ikasle antolakundearentzat. Baina ikas baldintza duinak aipatzen ditugunean zertaz ari garen argitu eta zehaztu behar dugu. Ikas baldintza duinak hezkuntza prozesu osoa ahalik eta modu egokienean garatzea ahalbidetzen duten errealitate material eta immaterialak dira. Gainera, hezkuntza eremuaren arabera ikas baldintzak duintzeko beharrezko neurri eta aldaketak askotarikoak dira. Honek eremu bakoitzeko aldarrikapenak ondo findu behar izatea eragingo du.

Ikamari dagokio ikasleonek beharrak zeintzuk diren aztertu, identifikatu eta hauek ikusaraztea. Ikas baldintzek ikasleriaren gehiengoari eragiten diete, beraz, ikasleria zabalarengana iristeko Ikamak izango duen aukera nagusietako bat, hauen aldeko aldarrikapen eta dinamikak izango dira.

Baina, zertaz ari garen zehatzago argitzeko, hiru multzo nagusitan banatu ditugu ikas baldintzak:

Ikas baldintza ekonomikoak: ikaslearen egoera ekonomikoan eragin zuzena duten egoerak dira. Aurretik argitu bezala, doako hezkuntza sistema bat izatetik urrun gaude eta hezkuntza prozesuan zehar egin beharreko diru xahutzeak asko dira.

Matrikula tasak, ikasmateriala, garrarioa, etxebizitzaren alokairua... ikasle orok urteetan zehar aurre egin beharreko gastuak izaten dira. Kontrara, gastu guzti hauei aurre egiteko beka eta dirulaguntzak gero eta murriztagoak dira eta hauek eskuratu ahal izateko baldintza oso zorrotzak bete behar dira. Gastu guzti

hauek ikasleen arteko aukera berdintasuna desorekatzen dute eta ikasle eta familia askok ezin diete hezkuntza sistematik eratorritako gastuei aurre egin.

Horregatik, Ikamak egoera hau iraultzeko borrokak eta dinamikak martxan jarriko ditu, ikasleek ahal bezain esfortzu ekonomiko gutxien egin dezaten eta norberaren egoera ekonomikoa hezkuntza prozesuan zehar determinantea izan ez dadin.

Ikas baldintza pedagogikoak: multzo honetan ikasleriaren ibilbide akademikoa ahalik eta modu osasuntsu, justu, seguru eta kritikoenan garatzeko neurriak biltzen dira. Hau da, ikasketa prozesuan zehar landuko diren edukiak, metodologiak, ebaluazio irizpideak, hizkuntza, ikuspegiak... kontuan hartu behar dira.

Hezkuntza eremuan zapalketak indartzen dituzten edukiak eskaintzen dira: Euskal Herriaren errealitatea kontuan hartu gabeko eduki taktikoak, ikuspegi zisheteropatriarkal batetik ematen direnak, eredu neoliberaletik eraikitzen direnak, ikasleen arteko lehia oinarritzen direnak... Honek guztiak ibilbide akademikoa euskal ikasleon behar eta errealitatera egokituta ez egotea eragiten du.

Ikasleon eskubideak: ikasleok hezkuntza sistemaren baitan hitz eta erabakimen gutxien aitortzen zaigun subjektua gara. Ikasleok ikasle izate hutsagatik eskubide politiko eta ekonomiko batzuk izan behar genituzke. Baina praktikan egoera oso bestelakoa da.

Kasu askotan, greba edo etenaldi eskubidea urratzen digute, oztopoak besterik ez dizkigute jartzen, espazio propioak izateko eskubidea ukatzen digute; ez dizkigute hitzaldi, aurkezpen edota formakuntzak emateko baimenak ematen, etengabeko infantilizazioa sufritzen dugu, egoera askotan ikastetxeetan indar polizialen esku hartzeak onartzen dira, irakasleen erasoak salatzeke protokoloa ez da eraginkorra... Egoera askoren aitzinean tresnarik gabe gaude.

Beraz, Ikamak ikasle estrategian zehar egin beharreko zeregin nagusienetako bat, egoerak ondo aztertu, ikusarazi eta ikas baldintza duinak eskuratzea izango da.

3. BORROKA FEMINISTA

Ikamaren izaera eta proiektu politikoa feminismoak ardatsu ditu orain arte, baita hemendik aurrera ere. Ikamak egiten duen guzti horretan feminismoa presente egongo da. Baina, nahiz eta transbertsala izan eta transbertsalki ulertu, momentu batzuetan protagonismo berezituagoa emango diogu.

Feminismoa belaunaldi gazteak politizatzeke arrazoi nagusietako bat da eta Ikamak sorreratik eragin hau sentitu du, ikasleriaren eta militantziaren partetik. Azken urteetan azaroaren 25ean eta martxoaren 8an askotariko eskaintzak egin ditugu, ikastetxe barruan zein kanpoan, Ikamaren izenean eta auzo eta herrietako gazte feminista taldeekin batera. Mugimendu feministaren deialdietan ere parte hartu dugu, hauek ikastetxeetara hurbilduz eta ikasleen artean zabalduz. Horrez gain, Ikamak agenda feminista bat osatu beharko du, bere deialdi propio eta mugimendu feminista zein Euskal Herriko gazte feministen deialdiekin batera.

Hurrengo urteetan ere, borroka feminista erdigunean egongo da. Hala ere, gizartearen eta gizonen partetik erreakzio bat dago. Momentu batzuetan feminismoa jo puntuan egongo da eta Ikamaren eginbeharra euskal ikasleriaren artean borroka hau presente egotea izango da. Ikasle garaia norberaren politizazio prozesuan ezinbesteko garaia da eta jendearen lehen militantzia eremua bertan izaten da. Hori horrela izanik, Ikamak balio feministak transmititzea eta borroka feministan eredu garria izatea ezinbestekoa izango da. Ikama militante feministak eta erreferentzia feministak eraikitzeke tresna izango da.

Baina, Ikamari hezkuntzatik eragitea dagokio, hau da, gizarteko eta mugimendu feministaren aldarrikapenak bere egiteaz gain, feminismoa hezkuntzatik borrokatu behar du: hezkuntza feminista eraiki beharko du. Eta dagoeneko aipatu baditugu ere Ikamaren eskaintza bakarra, ezin dira egun puntualak izan, baizik eta bere dinamika orokorretan modu identifikagarrian barneratua egon beharko da.

Antolakundearentzat Euskal Herriko Gazte Feministak gazte mailako erreferentziazko eragilea da. Gure partetik eurekin bildu, agendak eta planak konpartitu eta elkarlan bat abiatzeko borondatea egongo da. Harreman hau formalizatu eta estutzeko apustua egingo dugu.

Horretarako, ordea, Ikama ez da bakarrik egongo. Bai bigarren hezkuntzan eta bai unibertsitatean borroka feminista lantzen duten eragileak daude. Ikamak ez du eragile hauen lekua okupatuko eta hezkuntza feministara bidean elkarlanean arituko gara.

4. EUSKARAREN ALDEKO BORROKA

Ikama ikasle antolakunde euskalduna da eta euskara bere jardun politikorako eta kanpo zein barne komunikaziorako hizkuntza da. Baina, euskaldun izateaz gain, euskaltzale ere bada. Euskara hezkuntza prozesu osoan zehar, diskriminaziorik gabe eta Euskal Herri zabalean erdigunean egon dadin borroka egiten du. Beraz, Ikamaren helburua hezkuntza euskalduna eskuratzea izango da.

Hezkuntza eremuan euskararen aldeko borroka ikasleriaren aldarrikapen historikoa izan da eta oraindik ere bada. Nafarroako zona batzuetan euskara oraindik ez da ofiziala eta ez dute euskaraz ikasteko eskubiderik. Ezta Ipar Euskal Herrian ere, eta azterketak euskaraz egiteko eskubidea urratzen zaie. Unibertsitateetan egoera larritzen da. Euskal Herriko Unibertsitatean ikasgai asko ez dira euskaraz eskaintzen eta graduaren arabera eduki didaktikoa eta ikasmateriala ez dago euskaratua. Nafarroako Unibertsitate Publikoan euskaraz eskaintzen diren graduen kopurua oso txikia da eta honek Nafar euskaldun asko Araba, Bizkaia edo Gipuzkoara unibertsitateera joatea eragiten du. Honen ondorioz, herrialdeen arteko desoreka sortzen da.

Bigarren hezkuntzan, EAEko hezkuntza legean ereduaren sistema mantendu da. Guk, ordea, honen aurka egingo dugu, administrazioari eta hezkuntza sailari ereduaren sistema ezabatzeko eskatuz. Nafarroan instituzio eta agintariei eztabaida irekitzeko eskatuko diegu behingoz egoera normalizatu dadin. Unibertsitatean berriz, LOSUK aitortzen ez duen babes juridikoari aurre egiteko, euskalduntze dinamikak martxan jarriko ditugu.

Euskal Herriko mugimendu euskaltzalean ere hezkuntza euskaldunaren aldarria oso presente dago. Ikamak aldarri hori bere egingo du. Hala ere, antolakunde kontziente da ikastetxe eta unibertsitatean euskara taldeak daudela. Ikama eragile hauekin elkarlana izaten hasiko da, nork bere lekutik hezkuntza euskaldunaren aldarria zabaltzeko, elkar laguntzeko eta norabide berean jarduteko.

5. INDEPENDENTZIAREN ALDEKO IKASLE ALDARRIA

Ikama antolakunde independentista da. Euskal Hezkuntza Sistema Publiko Komunitariora bidean independentzia ezinbesteko tresna da. Hezkuntza Sistema Propioaren eraikuntza independentziaren gauzatzearekin batera ulertzen dugu. Momentu horretara arte, ahal beste eskumen eta botere egitura eskuratzen joango gara. Bide guzti honetan zehar, Ikaman modu esplizituan independentziaren aldeko aldarria egingo dugu. Norabide honetan proposatuko diren dinamika sozial, politiko eta instituzionalak babestu eta bultzatuko ditu.

Independentziaren aldeko aldarria modu askotan egingo du, momentu eksklusiboak momentu integratiboekin uztartuz. Hau da, egun eta momentu jakin batzuek aldarri independentista erdigunean jartzeko lanketak eskatuko dituzte; bestelako kasuek, ordea, modu transbertsalean lantzea eskatuko dute. Horregatik, eredu propioaren eraikuntza eta gure proiektu politikoaren gauzatzeak zuzenean lotuko ditugu independentziaren beharrek.

6. KOIUNTURA ETA KANPO ALDARRIKAPENAK

Ikama ikasle antolakunde bat izanik argi dugu hezkuntzako auziak direla bere lehentasun nagusia. Hau da, bere dinamika eta aldarri iraunkor eta garrantzitsuenek ikaslearen problematika eta errealitateari erantzun zuzena eman behar du. Honek, ez du esan nahi Ikama gizarteko eta Euskal Herriko gainontzeko prozesuetatik at geratuko denik. Ikamak injustizien aurrean funtzio sozial eta politiko bat du eta gerta daitezkeen askotariko gertakarien aurrean hauek behar bezala lantzeko erantzukizuna du.

Honek guztiak, Ikama egoera zehatzei erantzuteko agente bihurtzen du, ikasleria koiunturaren aurrean aktibatuz eta lerratuz. Horrela, Ikamak momentuaren arabera baloratuko eta erabakiko du zein egoerari erantzun eta zeini ez, beti ikuspegi korporatibistak alboratuz eta interes orokorrari erantzunez.

Bakoitzak bere eremuan egiten duen ezinbesteko jardunagatik Ikamarentzat Euskal Herriko mugimendu feminista, mugimendu ekologista, mugimendu euskaltzalea eta mugimendu transmariboltoa errefe-

rentzia politikoa dira. Mugimendu hauek martxan jarriko dituzten dinamika eta aldarrikapenak lehentasunezkoak izango dira guretzat. Ikamaren funtzioa beraz, mugimendu hauen aldarrikapenak eta borroka kaleetatik hezkuntza eremura eramatea izango da.

7. BORROKA EKOLOGISTA

Mundu mailan ikasleriak hartu du azken urteetan borroka ekologistaren bandera. Uste dugu Euskal Herrian datozen urteetan borroka ekologistak gero eta presentzia gehiago izango duela eta Ikama izan beharko da borroka hau hauspotuko duen eragile nagusienetako bat. Ikamak konpromisoa hartzen du datozen urteetan ikasleen artean borroka hau hedatzera.

Zaila da honen baitan Ikamaren funtzioa zein izan beharko den argitzea. Ikusteke dago datozen hilabete eta urteetan zein forma hartzen duen. Horren arabera moldatuko dugu gure jarduna. Esan dezakeguna da larrialdi klimatikoa borrokatzeko eta neurri urgentek eskatzeko lan egingo dugula eta trantsizio ekosoziala landuko dugula alternatiba gisa. Ikasleria eta belaunaldi berriak borroka honekiko kontzientzia hezikiko ditugu.

8. TRANSMARIBIBOLLO BORROKA

Gaur egun transmaribollo borroka ikasleriaren zati handi bat hartzen duen borroka da. Honek, hezkuntza sisteman duen eragina funtsezkoa da gizarte inklusiboagoa eta bidezkoagoa eraikitzeko. Hezkuntzak identitateak eratzen ditu, balioak garatzen ditu eta aniztasuna onartzea sustatzen du. Transmaribollo ikuspegi curriculumean sartzeak komunitate horien errealitateak eta historiak ikusarazteaz gain, ikasleen artean errespetuzko eta enpatiazko giroa sustatzen du.

Errepresentaziorik ez izateak bazterketa eta jazarpena ekar ditzake, eta gazteen osasun mental eta emozionalean eragiten du. Bestalde, aniztasuna besarkatzen duen hezkuntzak diskriminazioa eta aurreiritziak murrizten laguntzen du, belaunaldi berriak mundu plural batean bizitzeko prestatuz. Gainera, desberdintasunak ulertzea eta errespetatzea sustatzen du, eta hori funtsezkoa da ikasle arduratsuak eta konprometituak garatzeko.

Horregatik, funtsezkoa da hezkuntza erakundeek politika inklusiboak ezartzea, irakasleak gaitzea eta aniztasuna ospatzeko jarduerak sustatzea. Transmaribollo borrokak, eremu honetan, bere kideei mesede egiteaz gain, hezkuntza komunitate osoa aberasten du, guztiak baloratuak eta errespetatuak sentituko diren etorkizuna eraikiz.

3. ESTILO PROPIOZ

Aurretik Ikamaren helburuetara bidean landu beharreko gai nagusiak zeintzuk izan behar diren jaso dugu, bai ikasle on baldintzak hobetzeko norabidean eta baita proiektu politikora hurbiltzeko norabidean ere. Baina, gai eta borroka guzti hauek ez ditugu edozein modutan landuko. Ikamak bere borroka eta dinamika garatzeko estilo propio bat garatu behar du. Ondorengo hauek estilo edo filosofia hori eraikitzen joateko gako nagusiak dira.

Ikuspegi feminista

Ikamak bere burua feministatzat izatea, proiektu politikoa feminista gisa definitzea eta ikasle estrategiaren atal bat borroka feministari zuzentzea beharrezkoa da, hala ere hau ez da nahikoa. Feminismoa egiten dugun guzti horretan presente egon behar da, modu transbertsal eta zuzenean. Ikamari feminismotik pentsatzea eta feminismotik aztertzea dagokio, hau da, hortik jardutea.

Esaten duguna, egiten duguna, transmititzen duguna, kanpora begira eta barrura begira... Dena feminismoz bustita egon behar da. Gutxirako balioko du agenda feminista bat izateak gainontzeko borroka eta dinamiketan honen eragina nabaritzen ez bada. Halaber, iruzur egitea litzateke Ikama feminista gisa definitzea honek bere ikuspegi eta praktika orotan islarik ez balu.

Anbizioa eta boterearen lehia

Ikama ikasle antolakunde anbiziotsua izango da, eta honek, bere dinamika eta garatzen ari den borroketan isla izango du. Anbizioa izango duela diogunean logika batez ari gara. Hau da, ahalik eta espazio gehienetan eragiteaz ari gara, ahalik eta ikasle gehienengana iristean.

Ez dugu ikasle antolakunde trinko eta itxi bat izan nahi. Kontrara, irisgarria eta irekia izango den antolakunde bat nahi dugu. Horregatik, ikastetxe ahalik eta gehienetara eta ahalik eta kide gehien izatera iritsi behar gara. Antolakundeak anbizio horrekin jokatu behar du.

Norabide berean, Ikamak ikasle on ordezkari izateko lan egingo du. Bigarren hezkuntzan, unibertsitatean eta baita lanbide heziketan ere ikasle on ordezkari izateko anbizioa izango du. Geletako ordezkari izango gara, ikasle kontseiluetan egongo gara, ikasle hauteskundeetara aurkeztuko gara, unibertsitateko organoetan eragingo dugu... Hau da, boteregune eta erabakiguneetan egongo gara euskal ikasle on interesak defendatu eta aldarrikatzeko. Hori ezin dugu oposizio konstante batetik egin. Proposamen eraikitzaileak eta egingarriak aurkeztea, sozializatzea eta praktikan jartzea ere izan behar da organo eta erabakimen espazio guzti hauetan egingo dugun ekarpena eta izango dugun jarduteko jarrera.

Erreferentzia eta identitatearen indartzea

Ikamak datozen hilabete eta urteetan bere proiektua, ordezkatzeko dituen balioak eta bere erreferentzia indartzen lan handia du egiteko. Bere helburuetara iristeko, ikasleriari ortzi-muga bat eskaintzeko, bere baldintzak hobetzeko, balio batzuk hedatzeko eta hezkuntza komunitatean leku bat egiteko, ezinbestean, bere izenean lan egin beharko du.

Antolakundearen izena eta proiektua zabalitzearekin batera, identitate jakin bat eraikitzeak garrantzia izango du. Honek antolakunde bezala trinkotasuna eta eraginkortasuna emango dio. Beraz, gure lanaketan zentratzea lehentasun izan behar dugu.

Honek, dinamika politiko indartsu bat izatea eskatuko digu, argigarria izango dena eta ikasleriarekin konektatzeko gaitasuna izango duena. Horregatik, gure jardunaren erdigunean dinamika politikoa izango dugu.

Masa mobilizazioa eta borroka ideologikoa

Ikamak ikasleria ahalik eta zabalaren eraldaketa bilatuko badu, bi elementu hauetan asmatzea ezinbesteko izango da; masa mobilizazioan eta borroka ideologikoan.

Ikasle antolakundearen egitekoa ez da diskurtso eta formakuntza hiperideologizatuak eskaintzea izango, baizik eta politizatze eta balio eraldatzaileak barneratzeko eta lantzeko tresnak eskaintzea. Hori tailer, hitzaldi, formakuntza edota bestelako baliabideen bidez egingo dugu. Balioak lantzeaz gain, gure proiektuaren eta borroken zergatiaz arreta jarriko dugu, ikasleriak gure aldarriak eta hauen kausak ulertzea garrantzitsua baita.

Martxan jarriko ditugun borroka eta dinamikek eskaintza mobilizatzaileak izango dituzte, hau da, ikasleriaren parte hartze aktiboa eskatuko duten momentuak izango dituzte. Hauek ez dute mobilizazio soilak izan beharrik, beraz, Ikamari irudimenez jokatzeko egokituko zaio.

Borroka ideologikoa eta masa mobilizazioa ezin ditugu bereizirik ulertu. Batak bestea behar du, eta alderantziz. Nekez egingo dugu masa mobilizazioa borroka ideologikorik gabe eta ezer gutxirako balioko digu borroka ideologikoak ikasleriari mobilizatze eskaintzarik egiten ez badiogu. Beraz, Ikamak bi ildo hauen elkar ekintzan lan egingo du.

Finean, Ikamak ikasleriaren gehiengoaren atxikimendua izaten ahaleginduko da. Horretarako, ikasleriaren errealitatea eraldatzeko gaitasuna izango duten dinamika martxan jarri beharko dira.

Eraikuntza

Munduari, Euskal Herriari eta hezkuntzak jokatzen duen paperari erreparatuta, analisi ezkor eta katastrofistak ez egitea zaila da. Ikasle antolakundeak beti sistemari mugak bilatzearen alde jardun du, talkak bilatu eta alternatibak proposatuz. Salatu beharrekoak salatu beharko baditugu ere, Ikama euskal ikasleriari planteamendu eraikitzaileak eskaintzeko gai izan beharko da. Ezin gara kanpaina eta dinamika ezkor eta salatzaila geratu. Esan bezala, hauek momentu batzuetan beharrezkoak izango dira, baina gure helburu nagusietako bat ikasleon baldintzak hobetzea bada, proposamen errealista eta egingarriak egin behar dira.

Ilusioa, grina, gogoia... transmititu behar ditugu. Garai latz hauetan Ikamak esperantzaren bandera hartuko du, eta ikasleriari helduleku bat eskainiko diogu. Munduaren eta gure herriaren egoera zapaltzaileari ezin diogu soilik haserretik aurre egin.

Elkarlana

Zeharka bada ere, ponentzian zehar hezkuntza komunitateari eta gizarteko bestelako eragileei aipamenak egiten joan gara. Ikama elkarlanaren beharraz kontziente da, eta bakarrik ez du inolaz bere helburuetara iristeko aukerarik izango.

Epe motzean zein epe luzean, Ikamak bidelagunak izango ditu, hezkuntza eremuan baita bertatik kanpora ere. Hauetako batzuk, momentu jakin batzuetarako izango dira, hau da, erronka komun jakin bati erantzuteko. Beste bidelagun batzuk, ordea, iraunkorrak izango dira, dinamika luzeetan edota ikasturtez ikasturte baliatzeak.

Bigarren hezkuntzan, unibertsitatean eta lanbide heziketan ikasle antolakundeak ezaugarri askotariko errealitateak aurkituko ditu. Hauetara moldatzeko ardua izango dugu.

Bigarren hezkuntza: Ikamaren anbizioa ikastetxeetako erreferentziazko ikasle antolakundea izatea izango da, eta behar beste borroka hartuko ditu bere gain. Hala ere, lekuaren arabera eskemarik egokiena zein den baloratuko dugu.

Unibertsitatea: Ikasle feminista taldeek eta euskara taldeek haien borroka eremuari erantzuten diote. Ikamak eragile hauen lana beharrezkotzat du eta hauek indartzeko apustua egiten du. Honek ez du esan nahi Ikamak ezingo duenik feminismoaz edota euskararen aldeko borroka lanketarik egin, baina agentzia eragile hauei utziko die eta hezkuntza euskaldun eta feministara bidean elkarlana sustatuko du.

Ikasle eragileez gain, Ikamaren balio nagusiekin bat egiten duten eta hezkuntza sistema propioaren alde lerratzen diren sindikatu eta eragile politikoekin ere elkarlana eta koordinazioa sustatuko ditugu.

Ikusi dugun bezala, Ikamak bere helburuak erdiesteko estilo propio bat izango du, jarduteko askotariko filosofiek osatuko dutena. Ikuspegi feminista, anbizioa, auto-erreferentzia, masa mobilizazioa, borroka ideologikoa, ilusioa, elkarlana... Ikamaren izaera definitzen lagunduko duten elementuak izango dira.

4. IKASLE MUGIMENDUA ETA HONEN FUNTZIOAK

Euskal Herrian, eta baita munduko prozesu emantzipatzaileetan ere, ikasle mugimendua historikoki agente determinante bat izan da. Hori azken urteetan aldatzen joan da, protagonismo aldetik baita izaera aldetik ere. Hala ere, oraindik bere grina iraultzailea mantentzen du eta azken urteetan borroka sozial askoren gidaritza hartu du, besteak beste Txilen, Europan borroka ekologista erdigunean jarriz edota Palestinarekiko elkartasuna adieraziz.

Euskal Herrian ere ikasle mugimenduak askotariko forma eta edukiak izan ditu. Askotan, ikasle mugimenduz ari garenean, ez dugu argi izaten zehazki zertaz ari garen, lekuaren arabera aldakorra baita eta testuingurua ere asko aldatzen ari baita.

Ikamarentzat ikasle mugimendua intentsitate eta konpromiso maila nabarrekin jarduten duten ikasle politizatuak eta errealitate aldatzeko borondatea duten ikasleek osatzen dute, betiere balio eraldatzaileen bidez egiten badute. Ikasle mugimendua aniztasunean ulertzen dugu eta borroka asko bultzatzeko gai

da. Izaera askotariko ikasle eragileen arteko elkarlanak osatzen du eta interes komun batzuen inguruan artikulatzen da. Ikasle mugimendua osatzen duen kidegoa ez da ezinbestean modu iraunkorrean antolatutako ikasleria izan behar. Beste modu batean esanda, momentu puntualetan batu eta aktibatzen den ikasleria ere osatzen du ikasle mugimendua, beraz, dinamikoa da. Gainera, oso helburu diferenteak izan ditzake, bai anbizioz eta bai ikuspegiz eta helburu guzti horietara bidean ikasle bakoitzak eta ikasle eragile bakoitzak funtzio bat dauka. Ikasle mugimenduak oso arkitektura partikularra du, oso testuinguru berezia baitu. Ikama testuinguru horretan kokatzen da eta ikasle mugimenduaren partaide da.

Hezkuntza eremuan askotariko helburu, asmo eta ildo politikoko eragileak antolatzen dira. Ikamak batzuekin harreman gehiago izango du beste batzuekin baino. Horregatik, momentuaren eta helburuaren arabera beste eragileekin sortuko diren aliantzak baloratuko ditu. Erabaki hauek ertz askoren arabera hartuko dira: ikasle eragile bakoitzaren balioak, helburuak eta jarduteko moduak, besteak beste.

Euskararen aldeko borrokan eta borroka feministan Ikamak euskara talde eta ikasle feminista taldeak bidelagun izango ditu. Balio berdinen baitan hezkuntza euskalduna eta hezkuntza feminista eraikitzea helburu konpartitua izanik, antolakundeak eragile hauek hauspotu, lagundu eta indartzeko borondatea izango du.

Horrela, Ikamak paper garrantzitsu bat izango du ikasle mugimenduan, bertako ikasle eta eragileak artikulatuz, aktibatuz, zubi lanak eginez eta proposamenak eginez. Ikamak argi du ikasle mugimendua aktibo eta indartsurik gabe zaila izango dela bidea egitea. Ikamak ikasle mugimendua behar duen era berean uste dugu ikasle mugimenduak behar duela Ikama, balio eraldatzaile eta independentisten baitan jardungo duen Hego Euskal Herriko ikasle antolakundea baita, ikas baldintzak duintzea erdigunean izango duena.

Orain arte, ponentziaren momentu batzuetan, Ikamak bere erreferentzia indartu behar duela aipatu dugu, baita dinamika politiko nazional sendo bat izan behar duela ere. Momentuak hori eskatzen duela uste dugu. Baina hau ezin dugu ikasle mugimenduko beste eragile batzuen jardunaren kontrako norabidean ulertu. Ikamak ikuspegi orokorrago batetik ikasle mugimenduari begiratzen eta hau hauspotzen jakin beharko du. Ikasle mugimenduaren parte garen heinean, ezingo dugu ikasle eragile bakoitzaren jarduna modu bereizi eta isolatuan ulertu eta hauek integratu eta artikulatzen asmatu beharko dugu. Hori baita praktikan ikasle mugimendu zabal, bizi eta eraginkor bat izatea, bakoitza beretik baina denok elkarrekin aritzea.

7. NOLA EGINGO DUGU LAN

Gure balioak jarraituz, Ikamaren barne mailako funtzionamendu ereduak Ikasle Estrategian sakontzeari erantzun behar dio, horrela beraz, gure barne funtzionamendua Ikamaren printzipio eta balioen baitan ardaztu behar dugu.

Ikasle antolakundea independentista, feminista, sozialista, ekologista, euskaltzalea eta burujabea den heinean hau gure funtzionamenduaren izaeran txertatuta egon behar da, alegia, Ikamako militanteok balio hauek erreproduzitu behar ditugu eta gure barne-mailako antolatzeko eta harremanak izateko moduetan presente egon behar dira.

Militantzia eredu

Ponentzia osoan zehar, eta bereziki subjektuaren atalean garatu dugun moduan, Ikama ikasle antolakunde zabal, ireki eta anitza da, izaera, egitura eta funtzionamendu zurruna izatetik urrun, izaera dinamikoa duena.

Heziketa prozesua balore eta jakintzen transmisioan eta gaitasunak irabaztean oinarrituta dago, eta hortaz, euskal ikasleria antolatu asmo duen ikasle antolakundea garen neurrian, Ikamak errealitate hau oinarritzat hartu eta kezka eta intentsitate maila askotariko ikasleria barne bilduko duen militantzia eredu izan behar du.

Zentzu horretan, Ikaman aurrez aipatutako balioekin bat egiten duen ikasle orok izango du tokia. Gurea askotariko ekarpen eta konpromiso mailak uztartuko dituen militantzia eredu da. Antolakunde ireki eta zabala garen heinean, gure balioen baitan, askotariko ekarpen maila, kezka, jakin-min eta ardura mailak barne bildu behar ditugu. Honek gaitasun eraldatzaile handia duela uste dugu.

Beste alde batetik, norbanako oro da eraldaketarako subjektu. Bakoitzaren baitan aldaketarako gaitasuna aurkitzen da, eta Ikamako kideok honen kontzientzia hartu eta praktikara eramane behar dugu. Gure balio independentista, feminista zein euskaltzaleekiko ardura hartu eta gure bizitzako esparru guztietan hauen eroale izan behar gara.

Feminismoan arreta berezia jarri nahi dugu. Egoerarekiko kontzientzia hartu, gure pribilegioak zalantzan jarri eta barne eraldaketan sakontzeko konpromiso kolektibo zein individual sakona hartu behar dugu. Ildo beretik, Ikamaren jarduna feminismotik eginda militante feministen eskola izateko anbizioa dugu.

Militantzia ereduaren atalarekin bukatzeko, militantzia prozesua modu kontziente eta egokian hasi eta bukatzea Ikamako militante ororen zein taldearen ardura izango da. Militantziara lehen gerturatzea egiten duten kideei harrera ibilbide egokia egin beharko zaie, baita ikasle zikloa bukatzean dauden militanteek ere irteera ibilbidea modu txukunean garatu beharko dute.

Zaintza hirukoitza

Sistema kapitalista zisheteropatriarkalak, eta egungo hezkuntza sistemak, indibidualismora bultzatzen gaitu. Guk ordea, aipatutako balio eraldatzaileen bidetik modu kolektiboan antolatzeko hautua egiten dugu, militantziaren ekosistemako hiru erpinak kontuan hartuz: norbanakoa, taldea eta proiektua. Izan ere, militantzia norbanakook osatzen dugun talde batek proiektu bat erdiesteko egiten duen ibilbide gisa ulertzen dugu.

Hiru erpinak ezin ditugu bata bestea gabe ulertu, elkarren eraginean baitaude, eta hiru erpinen arteko oreka mantentzea gure helburuetan sakontzeko ezinbestekoa da. Izan ere, norbanakoaren edo taldearen zaintzari soilik erreparatuz gero proiektua nekez garatuko dugu. Aldiz, norbanakoaren zaintza baztertuz gero talde funtzionamendua kaltetua izango da eta ezingo dugu proiektuan aurrerapenik egin. Ordea, talde mailako zaintza bermatu ezean, hau osatzen dugun norbanakoengan eragin negatiboa izango du eta proiektuan sakontzea ezinezkoa izango da.

Horrela beraz, bidea ahalik eta zainduen egiteko hiru erpinen arteko oreka mantentzea ezinbestekoa da.

Barne tresnak

Ikamaren barne funtzionamendua hobetzeko, Ikasle Estrategiaren baitako erronkei begira antolakundea prestatzeko eta barne mailako kudeaketetarako askotariko tresnak garatuko ditugu.

- **Formakuntza:** Gure erronka hezkuntza sistemak ezarri asmo digun pentsamolde neoliberal eta zisheteropatriarkalaren aitzinean ikasle kritikoak sortzea da, eta hori, gaurdanik hasi behar da. Sistema-aren oldarraldi ideologikoa gainditu eta Ikamaren jardun politikoa aurrera eramateko beharrezko gaitasunak irabaztera bideratutako trebakuntzarako tresnak sortu eta landuko ditugu, maila kolektiboan zein indibidualean.

- **Erabakiak hartzeko mekanismoak:** Ikamaren izaera eta balioei loturik, antolakundeko erabaki kolektiboak maila kolektiboan hartzen ditugu. Honetarako, batetik, Ikasle Antolakundearen lerro zentralaren gaineko eztabaidak eman eta erabakiak hartzeko kongresuak ditugu, non militantzia orok ponentziaren edukien osaketan, emendakinetan zein azken bozketa parte hartzeko eskubidea duen. Bestetik, urteroko plangintzari zein antolakundearen bestelako gaietara loturiko eztabaidak eman eta beharrezkoak diren erabakiak hartzeko ikasturteko Bilgune Nazionala dugu. Bukatzeko, militante guztiek informazioa eskatu edo eztabaidak proposatzeko eskubidea dute. Ohiko eraketa bideen bidez egingo da eta Idazkaritzan baloratu ostean erantzun bat itzuliko da.

Zikloak

- **Ziklo orokorra**

Ikamak kongresua lau urterik behin egingen du, egoeraren gaineko analisia egin, azken lau urteetako anto-lakundearen balantzea osatu eta datozen urteetako ildo politikoaren norabidea finkatzeko helburuarekin.

- **Ziklo erdia**

Kongresu arteko lau urtetako fasean, bi urtero, hurrengo bi urtera begirako plan politikoa osatuko da, hain zuzen ere, kongresuan zehaztutako ildoaren orokortasunaren eta plangintzaren zehaztasunaren arteko zubi lana egiteko.

- **Ikasturteko zikloa**

Urtero, plangintza ikasturteko erreferentzia edukiz osatuko da. Irailean hasi eta maiatza-uda bitarte iraungo duena.

8. NOLA ANTOLATUKO GARA

Helburu politikoak erdiesteko antolatzen gara eta Ikamaren antolaketa ereduaren helburua hori bera izan behar da, antolakundearen izaeraren balio eta printzipioak jarraituz helburu politikoaren mesederako tresna izatea. Hain zuzen ere, horregatik eman dugu Unibertsitateetan eta Lanbide Heziketan antolatu eta jardun politikoa garatzeko jauzia, eta beraz, antolaketa ereduaren eta barne komunikazioaren hainbat berrikuntza mahai gaineratuko ditugu.

Hauek garatzen hasi aurretik, aipatu Ikamaren antolaketa ereduak dimentsio eta aparatu asko baditu ere, Ikasle Estrategiaren funtsa ertainetako zein Lanbide Heziketako ikastetxeak eta unibertsitateak indartzetik igarotzen dela, eta horrenbestez, ondorengo lerroetan garatuta dagoen egituraketa eredu horiek indartzearen mesedetan ulertzen dugu.

Bestalde, gaur-gaurkoz ez bagaude Lanbide Heziketan antolatuta ere, eta jakitun izanda eremuaren ezaugarrien ondorioz antolatzeko zailtasunak daudela, bertako militanteak sartzeko eta harreman zuzenen bidez Ikamaren lerro orokorra lurreratzeko apustua egingo da.

Aparatu Nazionala

- **Motor Nazional Zabala:** Ikamaren erabaki nagusiak hartzeko gunea da. Bertan antolakundearen osotasunari zein plangintzari loturiko erabaki nagusiak hartuko dira. Idazkaritzak eta herrialdeetako motorreko kide guztiek parte hartuko dute. Ikasturtean 2-3 aldiz bilduko da.

- **Motor Nazionala:** Ikamaren egunerokotasuneko zuzendaritza eremua da. Antolakundearen osotasunaren zein plangintzaren gaineko jarraipen, eztabaida eta erabakiak hartzeko espazioa da. Idazkaritzako kideek eta herrialdeetako bina kidek parte hartuko dute, bata ertainetatik etorria eta bestea unibertsitatetik. Bi asterik behin, astearteetan batuko da.

- **Idazkaritza:** Ikama ordenatu, koordinatu eta kudeatzeko eremua da. Epe luzera begirako antolakundearen eztabaida zein ildoaren ordenazioaz eta eguneroko kudeaketa zein erabakiez arduratzen da. Idazkari teknikoak, komunikazio arduradunak, eraketaz arduratuko diren bi kidek eta bosgarren batek osatuko dute. Astero, astelehenetan bilduko da.

Eremu zehatzei begirako lantaldeak

- **Komunikazio lantaldea:** Ikamaren jardun komunikatiboa sortu eta kudeatzeaz arduratzen da. Komunikazio arduradunak eta beste 2-3 kidez osatuta. Asteazkenetan bi-hiru astero bilduko da.
- **Lantalde feminista:** Ikamaren kanpo mailako jarduna eta eragite feminista epe luzeko ikuspegiz lantzeko eginkizuna du. Idazkaritzako kide bat eta herrialde bakoitzeko banaz osatua dago eta hilean behin bilduko da.
- **Formakuntza lantaldea:** Antolakundearen formakuntza ildoaren baitako edukia sortu eta kudeatzeaz arduratzen da. Idazkaritzako kide bat eta beste 2-3 kidek osatua. Hilean behin bilduko da.
- **Diruzaintza lantaldea:** Ikamaren burujabetza ekonomikorako diru iturriak bilatu eta eremua kudeatzeaz arduratzen da. Diruzain arduradunak eta herrialdeetako kide banak osatua. Hiru hilean behin bilduko da.

Herrialdeko aparatua

• **Herrialdeko motorea:** herrialdean informazioa lurreratu, ordenatu, herrialdeko plangintza osatu eta dinamikari jarraipena egiteko funtzioa du, baita unibertsitateen eta ertainen arteko koordinazioa egitekoa ere. Bi asterik behin, astearteetan bilduko da. Osaera:

- Araba: Gasteizko campuseko bi arduradun eta ertainetako hiru-lau kide (horietako bat Gasteizkoa).
- Bizkaia: Leioako campuseko arduradun bat, Bilboko unibertsitateetako arduraduna (Bilboko campusei eraketa egingo diena) eta ertainetako lau kide (horietako bat Bilboko).
- Gipuzkoa: Ibaetako campuseko arduradun bat, Mondragon unibertsitateko arduraduna eta ertainetako lau kide (horietako bat Donostiakoa).
- Nafarroa: NUPeko arduradunak eta ertainetako herrialdeko eta hiriburuko bina kide.

• **Ertainetako herrialde ekipoa:** ertainetako eskualdeetako arduradunei informazioa helarazi eta jarraipena egiteko eginkizuna du. Herrialdeko motorreko ertainetako kideak eta eskualde arduradunak biltzen dira bertan. Hiru astero bilduko da, ostegunetan. Marko funtzional bat izateko baldintzak dauden tokietan soilik sortuko dugu.

Lokaletako aparatua

- **Ertainetako taldeak:** tokian-tokiko plangintza garatu eta aurrera eramateko funtzioa dute.
- **Kanpuseko koordinazioa:** kanpusetako taldeko eginbeharrak koordinatu eta bilerak prestatzeko funtzioa du. Taldeko arduraduna(k), komunikazio arduraduna eta feminismo arduraduna bilduko dira, 2 astetan behin.
- **Kanpuseko taldea:** kanpuseko plangintza garatu eta aurrera eramateko funtzioa dute. Beharren arabera arduradun bat edo bi egongo dira, baita komunikazioko eta feminismoko bana ere.

Militantzia osoari begirako markoak

• **Bilgune Nazionala:** Ikamako militantzia osoa biltzeko espazioa izango da. Ikasturteko plangintza landu eta momentuaren arabera antolakundearen dauden eztabaida ezberdinak garatzeko baliatuko da.

Bagoaz zabaltzen. Nola izarak haizatuz aire-zabalean;
hala gu hegaka zabal-ederrean. Hats adoretzu bat jauzi
egiteko. Hedatu, luzatu, barreiatu, bete, zabaldu. Ihurri.

Ikama ikasle antolakundea
2024ko abenduan



**Ikamaren II.
Kongresua**